## AZPEITIKO IKASTOLA  IKASBERRI

# HIZKUNTZA

# PROIEKTUA

1- IKASTOLAREN EZAUGARRI SOZIOLINGUISTIKOAK ETA HIZKUNTZEN ESPARRUAN EGINDAKO IBILBIDEA

2-DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK

2.1. DEFINIZIOA

2.2 HIZKUNTZEKIKO ESKUHARTZE EREMUAK

2.3.HIZKUNTZA PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK

2.4. HIZKUNTZA PROIEKTUAREN KOKAPENA

3- HIZKUNTZEKIKO IKUSPEGIA ETA HELBURUAK

3.1 IKASTOLAREN IZAERAREN EZAUGARRIAK

3.2 HIZKUNTZEKIKO HELBURUAK

4-HIZKUNTZ PROIEKTUAREN OINARRI TEORIKOAK

4.1 IKASTOLEN HEZKUNTZA-EREDUAREN PRINTZIPIOAK

4.2. HEZKUNTZAREN IKUSPEGIA
4.2.1. EUSKAL CURRICULUMA: KONPETENTZIEN GARAPENEAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA
4.2.2. METODOLOGIAREN OINARRIAK

4.3. HIZKUNTZAREN ETA ELEANIZTASUNAREN IKUSPEGIA
4.3.1. HIZKUNTZAREN IKUSPEGIA

4.3.2. EUSKARAN ARDAZTUTAKO HEZKUNTZA ELEANIZTUNA
4.3.3. ESKOLAREN ZEREGINA EUSKARA INDARBERRITZEKO PROZESUAN
4.3.4. HIZKUNTZ ETA KULTUR ANIZTASUNARI ERANTZUNA: KULTUR INTEGRAZIO BARNEHARTZAILEA

4.4. HIZKUNTZAREN IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZAREN IKUSPEGIA
4.4.1. KOMUNIKATZEN IKASI KONPETENTZIA OROKORRA
4.4.1. GELA BARRUKO EREMUAN HIZKUNTZA BEHARRAK
4.4.2. HIZKUNTZA ARLOAREN TRATAERA
4.4.3. GELAZ KANPOKO EREMUAREN EKARPENA
4.4.4. HIZKUNTZ DIBERTSITATEARI ETA KALITATEARI BEGIRA, ERREGISTROAK

4.5. ERREGISTROEN TRATAERA

5- HIZKUNTZ PLANGINTZA

5.1- HIZKUNTZA BAKOITZAREN LEKUA ETA FUNTZIOA IKASTOLAKO EREMUAN.

5.2- HIZKUNTZA ERREGISTROEN TRATAERA.

5.3- ESKOLATZE BERANTIARREN ERRONKA

6- PRESTAKUNTZARAKO IRIZPIDEAK.

7- HIZKUNTZ PROIEKTUA KUDEATZEKO IBILBIDEA.

8- HIZKUNTZ PROIEKTUA KUDEATZEKO EGITURA ETA ZEREGINAK

9- HIZKUNTZA PROIEKTUA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

10- ERANSKINAK

10.1- IKASTOLAREN DIAGNOSIA

10.2- HIZKUNTZA ERREGISTROEN DOKUMENTUA

10.3- PLAN ESTRATEGIKOA

10.4- URTEKO PLANA

# 1- IKASTOLAREN EZAUGARRI SOZIOLINGUISTIKOAK ETA HIZKUNTZEN ESPARRUAN EGINDAKO IBILBIDEA

Urola erdian kokaturik dagoen ikastola da. Ikasleriaren portzentaje nagusia Azpeitikoa da. Baina Azkoitiko, Zestoako, Aizarnazabalgo, Errezilgo eta hainbat auzotako(Landeta, Urrestilla, Nuarbe...)ikasleak ere biltzen ditu.

Familia-tipologia elebiduna da ia ehuneko osoan, fenomeno bakarrenetakoa Euskal Herriko geografian. Ondorioz, ikasleak ere elebidunak dira (HH eta LHn gehiengoa euskal elebakarra). Azpimarratzekoa etorkinen kopurua handitzen ari dela eta hauen egokitzapena euskararekiko, azkarra eta egokia dela, salbuespenak salbuespen. Bistan dago, hau dena gauden eskualde euskaldun peto-petoa delako da. Hala ere, 2016an Soziolinguistika klusterrak egindako hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren emaitzetan ikusten da 4,3 puntu jaitsi dela. Oraindik ere oso euskalduna izaten jarraitzen du herriak, UEMAren arabera arnas guneetako bat da, baina ezin dugu "lorik hartu".

Beste hainbat ikastola bezala, 60ko hamarkadan sortu zen ikastola Urola Erdiko eskualde honetan, noski euskara eta euskal kultura oinarritzat hartuz, hezkuntza euskalduna lortu ahal izateko eta era berean frankismoaren eredutik libratzeko edo, gutxienez, urruntzeko.

Euskara-hizkuntza ikasleak bereganatzeko baino, hezkuntza euskaraz jasotzea zen helburua, zeren eta inguruaren ezaugarriengatik, lehen aipatu bezala,

zonalde hau ia guztiz euskalduna zen garai haietan ere. Horren lekuko, etorkin asko eta asko euskalduntzen zirela "kaleko eskolari" esker.
Ezerezetik hasita, aipatzekoa da garai hartako andereño bihurtutako gazteen adorea eta elizaren borondatea, bere gelak ikasgela bihurtzen uzteagatik. Nahiz eta ikasleen gehiengoak bertako jatorria izan, gero eta gehiago ziren etorkin jatorrikoak ikastola hautatzen zutenak euren hezkuntzarako. Lehen urratsetatik, Ikastolen Elkarteko material pedagogikoa erabili da eta D eredua izan da gauzatu den eredu bakarra.
Horren inguruan ez zen eztabaidarik egon . Bai ordea 70. hamarkadan sortu zen dilemarekin: euskalkia edo euskara batua, zeini eman lehentasuna. Eztabaida sutsu baten ondoren, euskara batua hautatu zen eta, nahiz eta gaur egun urrun ikusi gatazka hura, kosta zen zauria sendatzen.
1993ko Eusko Jaurlaritzak mahai gainean ezarritako publifikazio legea zela-eta, ireki zen ikastolak nozitu duen etekin larriena, ikastolako familia osatzen zutenen artean.
Prozesu luze, gatazkatsu eta mingarria jasan ondoren, 400 bat familia eta beste hogeiren bat irakasleekin sortu zen Azpeitiko Ikastola Ikasberri proiektua. Horrela erabaki ez zuten kideak eskola publikoan gelditu ziren.

Hala ere, euskaraz bizitzeko arazorik ez bada egon herrian ere, *Euskaraz Bizi* programan parte hartu dugu motibazio-kanpainak egiteko, eskolaz kanpoko ekintzak eta aisialdirako jarduerak antolatzeko, beti ere euskal kultura eta euskal nortasuna indartzeko asmoz.
90eko hamarkadan, Ikastolen Elkartea curriculum eleaniztuna diseinatzen hasi zen eta Ikastolak bat egin zuen *Eleanitz* proiektuarekin, euskara ardatz nagusi izango zuen eskola eleaniztunaren eredua garatzearekin. Gure ikasle gehienen ama-hizkuntza euskara izanik, Gaztelania beste ikastoletan zortzi urterekin ikasgai gisa hasten baziren ikasten ere, guk geure material propioa sortu genuen, Ingeleseko eleanitzetik ideiak hartuz, sei urterekin ekiteko, gaztelania 2. hizkuntza izanda hutsuneak nabaritzen genituelako ikasleak aurrera zihoazen heinean.3. hizkuntza, ingelesa, lau urtetatik lantzen dugu. Eta frantsesa, 4. hizkuntza, hamabi urtetatik aurrera, hau ere eleanitz proiektuaren barruan. Halaber, DBH 3n eta 4n Gizarte ikasgaia ingelesez irakasten dugu
2000. urtean, hizkuntzen ikas/irakaskuntza prozesuari buruzko gogoetan, ikastolen sareak urrats berria egin zuen Ikastolen Hizkuntz Proiektua izeneko egitasmoa abiatu zuenean. Azpeitiko Ikastola Ikasberrik Hizkuntza Proiektua idazteari ekin zion 2009-2010 ikasturtean. Honen helburua hizkuntza bakoitzaren inguruan sortutako proiektuak bateratzea, hizkuntzen irakaskuntzan erabilitako ikuspegi eta metodologia guztiak bateratzea, hizkuntza bakoitzaren inguruan sortutako proiektuak uztartzeko, hizkuntzaren irakaskuntzan erabilitako ikuspegi eta metodologia guztiak hizkuntzaren erabilera

instrumentalaren eraginkortasuna curriculum osoan hobetzea eta hizkuntzaren irakaskuntzaren eta hizkuntza gutxituaren gizarte-sustapenaren arteko lotura egokiak sortzea da.

Bestalde, 2013-14 ikasturtean euskal curriculumean oinarritutako EKI proiektua hasi ginen sartzen DBHn. Ikaslearen irteera profilean oinarrituta dago eta euskaran ardazturiko eleaniztasuna bideratzen du, era berean, Konpetentzia digitala ere arlo guztietara integratzen du. Euskal curriculumaren kultur ibilbidean eta konpetentzietan oinarritutako hezkuntza eredua sustatzen du.

# 2-HIZKUNTZA PROIEKTUAREN DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK

## 2.1 HIZKUNTZ PROIEKTUAREN DEFINIZIOA

Ikastolako hizkuntza helburuei erantzuteko, hizkuntzekiko lan-tresna integrala behar da, Ikastolaren komunikazio-testuinguru osoan (ikaskuntza-irakaskuntzan, eskola-komunitatearen harremanetan, eta Ikastola txertatuta dagoen gizarte hurbilekiko harremanetan) eragingo duena. Hizkuntza proiektua da lan-tresna hori.Ikastolarentzat proiektu estrategikoa da, dudarik gabe, Hizkuntza Proiektua: ikastolako eremu guztietan eragiten du eta komunitate osoaren ardura eta parte-hartzea eskatzen du. Bere funtzioak hauek dira:
a) ikastolako eremu pedagogikoetan zein instituzionaletan gertatzen diren askotariko hizkuntza ekintzak aztertzea, eta
b) sumatutako beharrei zentzuz erantzun ahal izateko, era sistematikoan eta bateratuan bideratzea hezkuntza-komunitate osoaren elkarlana, irizpide komunetan oinarrituta. **Ikastolan lantzen diren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdiak biltzen dituen eta haien trataerari koherentzia ematen dion egitasmoa.**

# HIZKUNTZA PROIEKTUA

Ikastolako komunikazio-eremu bakoitzak berezko ezaugarri soziolinguistikoak ditu; ezaugarri horiei erantzunez, berariazko hizkuntz erabilerak sortzen dira eremu bakoitzean, oso ezaugarri diferenteak dituztenak; hala nola, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuko joan-etorriak (idatzizkoak zein ahozkoak), gelaz kanpoko harreman informalak, ikastolako gobernu- eta funtzionamendu-organoen lan-egoerak, herri-erakundeekiko harreman administratiboak, eta abar.

Askotariko hizkuntz erabilera horiek errepertorio linguistiko zabal eta desberdin baten erabilera sortu eta eskatu ohi dute. **Hizkuntza menderatzea, hain zuzen ere, pertsona batek bizi duen egoera horietako bakoitzean era eraginkorrean jardun ahal izateko hizkuntz errepertorio horren jabe izatea da.**

Horrenbestez, asmoa da hezkuntza-komunitateko partaideen hizkuntz errepertorioaren kantitatean eta dibertsitatean eragitea; horrela, hizkuntza jakin batean aritzeko aukera gero eta egoera gehiagotan izanik, komunikatzeko konpetentzia garatuko dute; kalitatean ere eragingo dute, egoera horietako bakoitzean hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzeko gai izan daitezen, gero eta modu eraginkorragoan.

Hizkuntza bat erabiltzeko motibazioa berez handituko da, hizkuntzaren baliagarritasuna bermatzerakoan eta hura erabiltzerakoan erosotasuna garatzen den neurrian. Pertsonek hizkuntz errepertorio ahalik eta osatuena gara dezaten, gizarte-testuinguru jakin horietako bakoitzean komunikatzeko aukerak izan beharko dituzte ezinbestean; hori bermatzea izango da, esan bezala, gure Hizkuntz Proiektuaren funtzio nagusi bat. Horrekin batera, komunikazio-egoera horietan sortutako hizkuntz erabilera hobetzen eta garatzen joan dadin, bakoitzean berariaz eragin beharko dugu plangintza zehatz eta fokalizatu baten bitartez. Beraz, plangintza horren osagaiak izango dira, besteak beste, hizkuntz ekintza horien ezaugarrien azterketa eta deskripzioa, horien hobekuntzan eragiteko berariazko lan-metodologia, bakoitzean diharduten eragileen perfila eta prestakuntza ildoak; eta Hizkuntza Proiektuaren muina osatuko dute.

Horrenbestean, marko integrala da Hizkuntz Proiektua; gure ikastolaren barruan hizkuntzekin zerikusia duten esparru guztiak biltzen ditu, eta ikastolak inguruarekin dituen harremanetan sor daitezkeen esparruei ere erantzuten die. Hizkuntz Proiektua, gure ikastolan lantzen diren hizkuntza guztien trataera bateratua hartuko du bere gain. Hala, euskara ardatz duen eleaniztasunaren garapena era egokian bidera dadin ziurtatzeko, besteak beste, hauek izango dira langai nagusiak: **hizkuntz plangintza eragingarria finkatzea ikastolan, hizkuntza bakoitzaren funtzioak eta espazioa zehaztuz; hizkuntzen**

**ikaskuntza-irakaskuntzan erabilitako ikuspegi eta metodologiak bateratzea eta hizkuntzen erabilera instrumentalaren eraginkortasuna curriculum osoan bermatzea.**

Integrala izatearekin batera, ikastolarentzat proiektu estrategikoa da, dudarik gabe, Hizkuntz Proiektua: ikastolako eremu guztietan eragiten du eta komunitate osoaren ardura eta parte-hartzea eskatzen du. Hala izanik, ikastolako eragile guztiekin partekatu eta adostu ondoren, ikastolaren gobernu-organoek onartu eta bultzatu beharreko dokumentua da, eta zuzendaritzaren ezinbesteko inplikazioa eskatzen du.

## 2.2 HIZKUNTZEKIKO ESKUHARTZE EREMUAK

Aurreko arrazoiketari jarraituz, Hizkuntza Proiektuaren markoa ezingo litzateke hizkuntza erabiltzaileen edo subjektuen baitan antolatu, ikastolako hizkuntzen normalizazio planetan hainbatetan gertatu ohi den bezala; eskolako komunikazio-eremuen baitan garatu beharko da; izan ere, eremu horietako bakoitzak berezko ezaugarri soziolinguistikoak ditu eta, horiei erantzunez, berariazko hizkuntza erabilerak sortzen dira bakoitzean. Horrenbestez, ezinbestekoa zaigu ikastolako komunikazio-testuingurua zehatz-mehatz aztertzea eta hizkuntzen garapenean eragiten duten eremu guztiak, hots, *hizkuntzekiko esku-hartze eremuak* identifikatzea. Identifikazio horrek aukera emango digu hizkuntzen trataera ikuspegi sistemiko batez bideratu ahal izateko, eta esparru eta eragile askotarikoen arteko elkarreragina eta koherentzia ziurtatzeko.




Ikastola bere osotasunean hartuz, bi esku-hartze eremu nagusi bereiziko ditugu:

• **Eremu pedagogikoa:** atal honen barruan, hizkuntzaren garapenean eragina duten irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu guztiak biltzen dira eta, horietaz gain, xede pedagogikoak dituzten eskolaz kanpoko jarduerak ere jasotzen dira.

• **Eremu instituzionala:** atal honen barruan aurkezten diren alderdiak ikastolaren eraketarekin eta gizarte-harremanekin lotuta daude, eta ikastolan nahiz ikastolatik kanpo euskararen erabilera sustatzeko eta babesteko helburua dute nagusiki.

### 2.2.1. Eremu pedagogikoa

Halaber, eremu pedagogikoa bi azpi-eremutan banatuko ditugu: **gela barrukoa** eta **gelaz kanpokoa**.

**Gela barruko eremuak** irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak jasotzen ditu eta bi azpi-eremu biltzen ditu bere baitan. Alde batetik, *kudeaketa pedagogikoa*ren atala, hizkuntzen curriculum bateratua helburu duten erabakiak eta gainerako arloetako hizkuntza beharrei erantzuten diotenak biltzen dituena.

Beste aldetik, arlo guztiak besarkatzen dituen *interakzio didaktikoa*ren esparruari ere begiratuko dio eremu honek; gela barruko harreman-sareen hizkuntzaren kalitatea bermatzea eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan bideratutako komunikazioa ahalik eta aberatsena eta eraginkorrena egitea du helburu esparru horrek.

Horrekin batera, lan-ildo horiek aurrera eramateko irakasleen beharrezko *prestakuntza* eta *baliabideak* jasotzen dira hemen; hala nola, hizkuntzaren hobekuntza, metodologia eta didaktika, eta hizkuntzekiko jarrerak.

**Gelaz kanpoko eremuak** irakasle, hezitzaile nahiz begiraleekin bideratzen den gelaz kanpoko jarduna du helduleku. Ikastolaren egoera soziolinguistikoa kontuan hartuz eta hizkuntza bakoitzean ezarritako azken helburuen arabera beste hizkuntza batzuk erabil badaitezke ere, eremu hori euskal kultura eta euskararen, sustapenera begira legoke bereziki. Eremu horretan ikaslearen bizitzaren esparru ez-formaletan eragin nahi da, eta bitartekoak jarri nahi dira esparru horietan ohiko komunikazio-hizkuntza kalitatezko euskara izan dadin. Hortaz, gelaz kanpoko egoeretan bideratutako komunikazioaren kalitatea aztertuko dugu, hura aberasteko metodologia eta estrategiak landuko ditugu, eta horiek aurrera eramateko beharrezko hezitzaileen prestakuntza zein baliabideak zehaztuko ditugu.

### 2.2.2. Eremu instituzionala

**Eremu instituzionala** ikastolako hizkuntz politikari dagokiona da. Bi azpi-eremu biltzen ditu honek ere: **eraketa eta barne-komunikazioa** eta **kanpo-harremanak.**

**Eraketa eta barne-komunikazioa**ren atalean, ikastolaren testuingurua ahalik eta euskaldunena egiteko beharrezkoa den hizkuntz kudeaketari dagozkion erabaki nagusiak biltzen dira. Hartara, hizkuntza paisaia zaintzeko irizpideak ezarri eta haien jarraipena ziurtatzeaz gain, estrategiak zehaztuko dira eremu horri dagokion hezkuntza-komunitatearen harreman-sareetan euskararen erabilera eragozten duten etenak identifikatzeko eta gainditzeko. Harreman-sare horiek bitan banatu ditugu, *ikastetxea* eta *familia*, bakoitzean berariaz eragin ahal izateko.

**Kanpo-harreman**en atalean jasotzen dira ikastolak euskara sustatzeko inguruko gizartearekin elkarlanean sortu beharreko loturak eta bultzatu beharreko konpromisoak.

Aipatu berri ditugun eremu eta azpi-eremu horietan guztietan esku hartzeko beharra legoke; izan ere, lagungarriak dira ikasleentzat, eguneroko bizitzan hizkuntza(k) tresna baliagarritzat erabiltzeko behar duten komunikazio-konpetentzia garatzeko.

Horrez gain, beharrezkoa da komunikazioaren eta hizkuntzaren erabilera (ikasgelan eta eskola-giroan, orokorrean) sustatzen duten hizkuntza irakasteko metodologiak erabiltzea; izan ere, gehienetan gizarte-inguruneak ez du eskaintzen ikasleek hizkuntz garapenerako behar dituzten komunikazio jardueren aukera nahikoa.

## 2.3 HIZKUNTZA PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK

Halako marko integral batek eskatzen dituen baldintzak bete daitezen, ezaugarri hauek beteko ditu gure Hizkuntz Proiektuak:

• **Koherentzia.** Gure Hezkuntza Proiektuan definitutako izaera eta helburuekiko koherentzia izango du. Hezkuntza Proiektuak ikastolaren hezkuntzarekiko eta hizkuntzekiko xedea.
eta ikuspegia jasotzen dituenez gero, Hizkuntz Proiektuan hartuko diren erabaki guztiak baldintzatzen ditu.

• **Egokitasuna.** Gure testuinguru sozio-ekonomiko linguistiko eta kulturalari egokituriko hizkuntz heziketaren ibilbidea garatuko du gure ikastolaren Hizkuntz Proiektuak.

• **Legezkotasuna**. Ikastola kokaturik dagoen lurralde administratiboari, EAEri dagokion Hezkuntza Sistemak zehazten duen hizkuntzekiko lege-markoa aintzat hartuko du Hizkuntz Proiektuak, betiere ikastolaren Hezkuntza Proiektuaren koherentzia zainduz.

• **Integrala eta parte-hartzailea.** Hizkuntz Proiektuak eragina du ikastola osatzen duen hezkuntza-komunitate osoan; komunitate hori osatzen dutenen partaidetzaren eta inplikazioaren arabera gauzatuko dira bertan formulatutako irizpideak. Bertan jasotako erabakiek hezkuntza-komunitateko kide guztiak konprometituko dituzte. Gainera, hizkuntz eragile dinamikoak izan behar dute ikastolako bizitzan Hizkuntz Proiektuan jasotzen diren printzipioek eta horietatik eratorritako ekimenek.

## 2.4 HIZKUNTZA PROIEKTUAREN KOKAPENA

## HIZKUNTZA PROIEKTUA

Ikastolaren ezaugarri bereizgarriak adostu eta **Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan (IHP)** finkatzen dira honako asmo honekin: ikastolaren errealitateari eta kokaturik gauden testuinguru sozio-ekonomiko linguistikoari eta kulturalari egokituriko heziketa-jarduera modu koherentean islatzea. Horrez gain, bertan jasoko ditugu hezkuntza-komunitateko partaide guztiek bere egindako ezaugarriak, heziketaren helburu komunak, oinarri pedagogikoak, antolaketa-egituraren ardatz nagusiak, eta abar.

Hizkuntz Proiektuaren zeregina izango da, hain zuzen ere, Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan hizkuntzen trataerari buruz finkatzen diren printzipioak garatzea; horretarako, ikastolan lantzen diren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdiak bilduko dira eta haien trataerari koherentzia emango zaio.

Halaber, Hizkuntz Proiektuan bildutako erabakiek eragin zuzena izango dute ikastolako
Curriculum Proiektuan, bertan jasotzen baitira ikaskuntza-irakaskuntza bideratzeko
irizpideak. Izan ere, hizkuntzei buruzko alderdiek garrantzi handia dute Curriculum Proiektuan, batetik hizkuntzak eduki garrantzitsua direlako, eta bestetik, are gehiago, hizkuntza ikaskuntza-irakaskuntza ororen tresna nagusia delako.

Horrekin batera, Hizkuntz Proiektuak ikastolako eraketa eta kudeaketa mailako beste hainbat dokumentutan ere eragingo du, haietan gauzatuko baitira Hizkuntz Proiektuan zehaztutako hizkuntzen trataerarekiko ildoak. Dokumentu horien artean daude: ikastolaren barne-araudia, urteko plangintza, aurrekontuen proiektua, ikastolaren kudeaketa-memoria eta abar.


Hizkuntz, hezkuntza eta curriculum proiektuak
HEZKUNTZA PROIEKTUA
HIZKUNTZ PROIEKTUA
CURRICULUM PROIEKTUA

# 3- HIZKUNTZEKIKO IKUSPEGIA ETA HELBURUAK

## 3.1- IKASTOLEN IZAERAREN EZAUGARRIAK

Azpeitiko Ikastola Ikasberriko proiektu honek ikastolen funtsezko definizioan du bere ardatza; hau da, Ikastolek *kalitatezko hezkuntza euskalduntzat* definitzen dute bere burua. Definizio horrek hizkuntzen trataerari ematen dion leku nagusia ikastola-ereduaren honako ezaugarri hauetan zehazten da.

• **Euskalduna – euskara eta euskal kulturaren eragile.** Ikastolen mugimendua euskal hizkuntza eta kultura transmititzeko, euskararen erabilera eraginkorra egiteko, garatzeko eta indartzeko konpromisoarekin sortu zen; hori du ezaugarritzat, betiere beste kultura batzuei irekita, ukipeneko auzo-kulturei batez ere, kultur arteko hezkuntza-planteamenduak eginez eta gauzatuz.

• **Eleaniztasuna euskara ardatz dela.** XXI. mendeko gizartearen hizkuntz beharrei erantzunez, honako bi helburuon lorpena bideratzea da ikastolaren hizkuntz plangintzaren xedea: batetik, euskarak bere hizkuntz esparruan behar duen garapen osoa lortzea eta, bestetik, pertsona euskaldunak beste hizkuntza batzuk ezagutzeko eta erabiltzeko gai izatea.

• **Gizartean integratua.** Ikastolak herri-ekimenean oinarritzen diren eskolak dira, eta herri-ekimenetik sortutako antolaketa eta kudeaketa eredua daukate. Beraz, gizarte horren beharretara irekiak daude eta, aldi berean, haren eraldatzaileak ere badira.

• **Hezkuntza-komunitate osoaren partaidetza aktiboa.** Ikastolak egina du hautabide demokratikoa. Hezkuntza-komunitatea osatzen duten kide guztiek (gurasoek, irakasleek, hezitzaileek, begiraleek, bestelako langileek, ikasleek) hartu behar dute parte haren gestioan, eta aktiboki lagundu haren funtzionamenduan.

• **Berritzailea, I + G.** Etengabe aldatzen ari den munduan modu jarraian ikasteko eta berritzeko gai izango den egituraren aukera egiten du ikastolak; era berean, aldaketarako, berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako prestatutako hezkuntza-sare modura jardungo du.

## 3.2 HIZKUNTZEKIKO HELBURUAK

### 3.2.1. Helburu orokorrak

Halako eskola-eredu batek bere jardunean hizkuntzen trataerari ematen dion lehentasuna ikusirik, egin beharreko lana gidatuko duten hizkuntzekiko helburu orokor hauek ondorioztatzen ditugu:

1. Ikastolak **formazio euskalduna eman** nahi die ikasleei, euskara ongi menderatuz, eta euskararen eta euskal kulturaren transmisio, garapen eta indartzearekin konpromisoa hartuz. Gauzak horrela, **Azpeitiko Ikastola Ikasberrik euskal hiztunak hezi nahi ditu**, etengabe eraginez euskara eta euskal kulturarekiko motibazioan eta harekiko jarrera baikorrean.

2. Ikastolak, Hezkuntzaren eta Hizkuntz Proiektuaren ardatza euskara duela, pertsona **euskaldun eleaniztunak** hezi nahi ditu, beste hizkuntzen beharrezko ezagutza eta erabilera erdiestea bideratuz. Hots, bertako hizkuntza propioaz eta ukipen-hizkuntzaz gain (gaztelania), nazioarteko harremanetan nagusi den hizkuntza maila onean erabiltzea lortu nahi du; era berean, Estatuko beste hizkuntza ofizialean komunikatzeko oinarrizko maila garatzea du helburu.

3. Halaber, **Azpeitiko Ikastola Ikasberrik euskaraz gauzatu nahi du bere hezkuntza komunitatearen barne-bizitza;** euskararen eta euskal kulturaren transmisioa, garapena eta zabalkundea ziurtatu nahi ditu mota guztietako harremanetan eta horretarako sortutako bitartekoetan.

4. Euskararen biziberritzea indartzeari dagokionez, Ikastolak **euskararen normalizazio-prozesuan eragile** izan nahi du txertatuta dagoen komunitatean. Hartara, bestelako gizarte eragileekin zein askotariko instituzioekin lankidetzan jarduteko borondatea du.

### 3.2.2. Hizkuntzekiko erreferentziazko lorpen-mailak

Ikastolan hezitako "euskaldun eleaniztunek" haien heziketa-prozesuaren bukaeran hizkuntzak maila jakin batean menperatzea lortu nahi da. Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzaren bukaeran, legez hezkuntza sistemak ezartzen dituen mailez gain, *Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculumean* (2006) finkatu dira hizkuntzekiko lortu beharreko konpetentzia-mailak, betiere Europako Erreferentzia Markoak (Europako Kontseilua, 2005) proposatzen duen mailaketa aintzat hartuz:




Azpeitiko Ikastola Ikasberriko DBH amaierarako hizkuntzen lorpen-mailak:

| HIZKUNTZAK | LORPEN MAILAK |
|---|---|
| Euskara | B2 |
| Gaztelania | B2 |
| Ingelesa | B1 |
| Frantsesa | A2 |

• Euskara zein beste hizkuntza ofizialerako (gaztelania) erabiltzaile independentearen B2 maila lortzea dugu helburu; honela deskribatzen du Europako Erreferentzia Markoak (op.cit.):

"Gai da gai zehatzei nahiz abstraktuei buruz diharduten testu konplexuetako ideia nagusiak ulertzeko, baita testu teknikoenak ere, betiere bere espezialitatearen arlokoak badira. Jatorrizko hiztunekin mintza daiteke, jariotasunez eta naturaltasunez, halako eran non ez solaskide batek ez besteak ez duten ahaleginik egin behar elkar ulertzeko. Testu argiak eta xeheak sor ditzake gai askori buruz, eta gai da, orobat, gai orokorrei

buruzko ikuspegi jakin bat aldezteko, aukera bakoitzaren aldeko eta kontrako argudioak emanez".

• Ingeleserako, nazioarteko "lingua franca" izaerari erantzunez, erabiltzaile independentearen B1 maila lortu nahi dugu:

"Gai da argi eta hizkuntza estandarrean idatzitako testuen puntu nagusiak ulertzeko, gai ezagunei buruzkoak badira, lanaren esparruan, ikasketen esparruan eta aisialdian. Badaki hizkuntza hori erabiltzen den lurraldeetan bidaiatzean sor daitezkeen egoera gehienetan moldatzen. Gai ezagun edo interes pertsonalekoei buruzko testu soilak eta koherenteak osa ditzake. Esperientzien, gertaeren, nahien eta asmoen berri emateko gai da, eta gai da, orobat, bere iritziak labur-labur arrazoitzeko edo bere asmoak azaltzeko".

• Mugaz bestaldeko euskal komunitatean, beste hizkuntzarako (frantsesa) oinarrizko erabiltzailearen A2 maila lortu nahi da. Ikastolak orain lau urte apustua egin zuen eta hautagai izatetik oinarrizko ikasgai izatera pasatu zuen Frantsesa ikasgaia. Euskal Herriko hizkuntza denez eta hain gertu daukagunez, beharrezkoa iruditu zitzaion hizkuntza honen oinarrizko ezagupena, hain kilometro tarte txikian arrotz ez sentitzeko.

"Bereziki esanguratsuak dituen esperientzia-esparruekin loturiko esaldiak eta esapideak, eguneroko bizitzakoak, ulertzeko gai da (bere buruari eta familiari buruzko oinarrizko informazioa, erosketei, intereseko lekuei, lanbideei eta abarri buruzko informazioa). Badaki ataza soilak eta arruntak egiteko orduan komunikatzen, baldin eta ezagunak edo ohikoak dituen gaiei buruzko informazio-truke erraza eta zuzena bakarrik eskatzen badute. Badaki bere iraganaz eta inguruneaz deskribapen errazak egiten, baita bere berehalako beharrei buruzko deskribapenak egiten ere".

# 4- HIZKUNTZA PROIEKTUAREN OINARRI TEORIKOAK

Azpeitiko Ikastola Ikasberrik Hezkuntza Proiektuan definituta dituen hezkuntza eta hizkuntzari buruzko oinarrizko printzipioen eta irizpideen arabera jokatzen du, gure Hizkuntz Proiektua garatuko duten erabakiak hartzeko eta plangintzak zehazteko orduan. Oinarri horiek abiaburua dute Ikastolen kolektiboak bere hezkuntza-eta eraketa-ereduan eta bere curriculum proposamenetan bildutakoetan. Atal hauetan jasotzen dugu oinarri teoriko horien sintesia.

## 4.1. Ikastolen hezkuntza-ereduaren printzipioak

"Ikastolak. Orain eta gero" (EHIK, 2008) dokumentuari jarraituz, zutabe hauetan sostengatzen da Ikastolen Hezkuntza Eredua:

- **Hezkuntza, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen sustatzaile**

Gure ikastolak bat egiten du Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko (1948) 26. artikuluarekin, non pertsona orok oinarrizko ikasketak dohain egiteko duen hezkuntza-eskubidea aldarrikatzen den; bat egiten du hezkuntzaren giza nortasuna guztiz garatzeko eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzeko hezkuntza xedearekin; eta bat egiten du, era berean, seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko gurasoek duten lehentasunezko eskubidearekin.

- **Guztiontzako eskola barne-hartzailea**

Euskal gizartea kultur askotarikoa denez gero, gure Ikastolak guztiontzako eskola barne-hartzailearen alde egiten du, Euskal Herriko pentsaera eta jokaera sozial, politiko, eta erlijioso ezberdinak integratuz eta orekatuz. Hau da, helburu du maila sozial eta ekonomiko guztietako pertsonei irekia izatea, aukera berdintasuna bermatzea, eta gure ikasleek Europan txertatuta eta munduarekin lotuta dagoen euskal gizarte kohesionatu batean bizitzen ikastea.

- **Pertsonaren eta gizartearen eredua**

Hezkuntza-prozesuaren xedea da gizabanako, gizartekide eta izadi-kide gisa banaezinak diren pertsonaren dimentsioen ahalik eta garapen-maila handiena eta orekatuena erdiestea. Ikuspegi horretan oinarrituz, hezkuntzaren xedeen nahiz bizitzaren arrakastaren lorpena ezagutzeko parametroak honakoak dira: batetik, pertsonak gizabanako gisa lortu dituen gaitasunen garapen-maila; bigarrenik, gizartearen bizikidetza-baldintzak eta gizartearen garapen-maila hobetzeko egindako ekarpenak; eta azkenik, izadia zaintzearen eta iraunkortasun jasangarriaren alde egindako ekarpenak.

Bizitza osorako hezkuntzaren ikuspegi integral hori erdiesteko asmoz, Azpeitiko Ikastola Ikasberriren Hezkuntza Proiektua Europako parlamentuak gomendatzen dituen oinarrizko konpetentziak lortzera bideratuko da. Bestela esanda, pertsona guztiek beharko dituzten oinarrizko konpetentziak garatzea izango da helburua, beren asebetetze eta garapen pertsonalerako, herritar aktiboak izateko, gizarteratuta egoteko eta enplegurako.

Horretarako, Ikastolen Euskal Curriculumean proposatzen diren oinarrizko konpetentziak sustatuko ditu ikastolak; hori dela eta, oinarrizko konpetentzia horiek ikasleen ikastola-bizitzako egoera guztietan uztartuko ditugu.

Gure Ikastolak, beraz, oinarrizko heziketa eta bizitza osorako prestakuntzaren oinarriak finkatuko ditu. Hori lortzeko, pertsonaren garapen osoa besarkatuko du, beste prestakuntza-maila batzuetarako eta lan-mundurako sarbideak prestatuko ditu, ikaslea eragile ekintzaile, profesional, ekonomiko eta sozialak izateko prestatuko du, baita bere bizitza zentzuz bideratzeko eta bere etorkizuna arduraz hautatzeko ere.

- **Euskal eskola**

Komunitate eta herri guztien eginkizuna eta eskubidea da bere kulturaren dimentsio guztiak babestea, bizitzea, berregitea, garatzea, eta kultura horretako kideei transmititzea familiaren, eskolaren eta gainerako komunikazio-moduen bidez. Azpeitiko Ikastola Ikasberriren sorrera eta ezaugarriak, euskara eta euskal kultura transmititzeko, garatzeko eta bultzatzeko konpromisoan oinarritzen dira, betiere hurbileko eta urruneko kulturetara ateak irekiz.

Gure Ikastolak euskararen eta euskal kulturaren inguruan batzen den identitate euskalduna proposatzen du, eta hizkuntzen eta kulturen arteko planteamendu integratzailea sustatzen du, hizkuntzen eta kulturen arteko konpetentziak osagarritzat hartuz.

Printzipio orokor horiek gauzatzerakoan ikastola taldeak hezkuntzaren, hizkuntzaren, kulturaren eta hizkuntz irakaskuntzaren inguruan egin dituen hautu nagusiak azalduko ditugu jarraian.

### 4.2. Hezkuntzaren ikuspegia

#### 4.2.1. Euskal Curriculuma: konpetentzien garapenean oinarritutako hezkuntza

Azpeitiko Ikastola Ikasberrik sorreratik du gizartean txertatutako hezkuntza-eredu berriztatzailea garatzeko grina eta, beraz, hasieratik ekin dio ezagutzaren transmisioa helburu zuen eskolatik urruntzeko bideari. Bide horretan, pauso garrantzitsu bat eman zuen 1990eko hamarkadan, hezkuntza-erreformak proposatutako ikuspegi eraikitzailearen harira. Orain, eskolaren bestelako eraberritze prozesu batean murgilduta gaude, eta horrek Ikastolari gizartearekiko hartuta duen konpromisoa berrestea eskatu dio. Dokumentu honen diagnosi-atalean azaldu dugun moduan, egungo gizartearen ezaugarriek

inoiz ez bezalako erronka berriak ezarri dizkiote hezkuntza-sistemari. Ikasleak komunikazioaren eta kulturaniztasunaren gizartean bizitzeko prestatu beharrak birplanteaketa sakona eskatu du hezkuntzaren xedeetan, curriculumean eta ikaskuntza-irakaskuntza metodoetan. Diagnostiko horretan eta horri dagokion erantzunetan, adostasun handia gertatu da hezkuntza-plangintza berrietan[17].

XXI. mendearen hasieran, Azpeitiko Ikastola Ikasberrik berrikuntza horren ardatzak bere egin zituen , eta beste hainbat eragilerekin batera Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumean proposamena garatu zuen (A. A., 2005). Lan hori abiapuntutzat hartuz, Ikastola bere Hezkuntza eta Curriculum Proiektuak berritzen ari da eta berrikuntza horren isla dira Ikastolen Euskal Curriculuma eta hortik eratorritako ikasmaterialak eta egitasmo berriak erabiltzen ditugula.

Hezkuntza eredu berri horren arabera, hezkuntza-sistemaren xedea da pertsonak dimentsio guztietan (gizabanakoa, gizartekidea eta izadikidea) eraginkortasunez *jarduteko* trebatzea.

Horrela, eskolaren zeregin nagusia izango da gizartean partaidetza aktiboa edukitzeko eta bizitzako beharren aurrean era eraginkorrean ekiteko beharrezkoak diren *konpetentziak* garatzea.

Eskolak bilatzen duen pertsona **konpetentea**, egoera eta testuinguru zehatz batean eraginkortasunez erantzuteko gai dena da, eta horretarako beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak era bateratuan eta integratuan erabiltzen dituena.

Horretarako, ezinbestez *oinarrizko konpetentziak* garatu behar dira. Bi eratakoak berezi daitezke: batetik, *oinarrizko konpetentzia metadiziplinarrak*, diziplina edo ikasarlo guztientzat komunak direnak eta bizitzaren eremu eta

[17] Ikus Europako Kontseiluak, Espainiako eta Frantziako Hezkuntza Ministerioek eta Nafarroako eta EAEko Hezkuntza Sailek bideratutako marko, legedi edota dekretu berriak.

egoera guztietarako balio dutenak[1]. Bestetik, *oinarrizko konpetentzia diziplinarrak eta diziplinartekoak*, ikasarlo edo diziplina bakoitzak berezkoak dituenak edo hainbat diziplinaren propioak direnak. Azken horiek, bizitzaren eremu eta egoera zehatzagoekin dute lotura eta testuinguru espezifikoetan aritzeko beharrezkoak dira. Oinarrizko konpetentzia metadiziplinarrak, arlo diziplinarretan integratzen diren heinean, bitartekari edo operadore dira, bai hezkuntza-xedeen, bai oinarrizko konpetentzia diziplinarren lorpenerako.

Ikuspegi berri horrek lehen planora dakar hizkuntzaren trataera. Hain zuzen ere, hizkuntzak berebiziko eginkizuna du oinarrizko konpetentziak lortzeko orduan, bera baita giza garapenerako tresna nagusia, eremu guztietan eta gure egiteko guztietan erabiltzen dugun bitartekoa.

**Hizkuntza da nortasunaren garapenerako tresna nagusia**.

Batetik, barne-antolaketarako eta autoerregulaziorako tresna da hizkuntza, irizpide eta jokabide pertsonalak eraikitzeko tresna. Bestetik, komunikazio-sistema den neurrian ere garrantzitsua da, harreman sozialek funtzio nagusia baitute gizakion izaeraren garapenean. Pertsonak bere iritziak, pentsaerak, esperientziak eta emozioak besteei adieraziz eta haiek adierazitakoekin bereak kontrastatuz eta osatuz eraikitzen du bere ezagutza-, balore- eta uste-sistema. Azkenik, hizkuntzaren bidez garatzen dira, hein handi batean, izaeraren osagarri eta aberasgarri diren sormena, balio estetikoak, ludikotasuna, umorea edota gozamena, ahozko nahiz idatzizko literaturaren eskutik. Eta literaturak bideratzen ditu, neurri handi batean, identitatea eraikitzeko beharrezkoak diren kultur ezagutzak ere, komunitate baten partaide egiten gaituztenak.

[1] Oinarrizko konpetentzia metadiziplinarrak: pentsatzen eta ikasten daki; komunikatzen daki; norbera izaten daki; elkarrekin bizitzen daki; egiten eta ekiten daki.

**Hizkuntza da pentsamendua egituratzeko eta errealitatea barneratzeko tresna nagusia.**

Hizkuntzaren bidez, kontzeptu berriak hitzez adierazten eta barneratzen ditugu, gure ezaguera-sistema antolatzen eta ordenatzen dugu, eta jasotzen ditugun ezagutza berriak biltzen eta lotzen ditugu; ahozko nahiz idatzizko hizkuntzak ahalbidetzen ditu, nagusiki, informazioa bilatu, era kritikoan interpretatu, aukeratu, antolatu, sortu, eta komunikatzeko gaitasunak. Ondorioz, hizkuntzaren garapen egokia izango da esparru akademikoan arrakastaren giltzarria, hura baita ikaste-irakaste prozesu ororen oinarrizko euskarria.

**Hizkuntza da gizartean parte hartzeko eta elkarrekin bizitzeko tresna nagusia.**

Pertsonen arteko komunikazio egokirako gaitasuna giltzarri da gure bizitza sozialean; elkarrizketa formal nahiz informaletan parte hartu, arazoei irtenbideak eman, besteak konbentzitu, egoerak negoziatu, elkarrekintzan lan egin... guztiak dira bizikidetzarako oinarrizko trebetasun sozialak, hizkuntzaren bidez gauzatzen direnak.

Halaber, hizkuntza da gizartea bera antolatzeko tresna. Hizkuntza idatziaren funtzio nagusietako bat, hain zuzen ere, bizikidetzaren antolaketa da, gizartea egituratzen duten legeen, arauen, erregelen bidez gertatzen dena. Bestalde, erakundeetatik igorritako diskurtsoek bideratzen dute, neurri handi batean, gizartearen dinamika.

Komunikabideek ere funtzio garrantzitsua dute gizartearen eraketan; gero eta handiagoa, lehentxeago aipatu dugun moduan. Informazio ugaltzearen ondorioz, gero eta beharrezkoagoa da jasotzen ditugun mezuak aukeratzea,

hierarkizatzea, haien balioaz hausnarketa kritikoa egitea eta erabilera sortzailea egitea.

Beraz, gizartean parte-hartze kritiko eta arduratsua eduki ahal izateko, menderatu beharra dago erakundeekiko harreman- edo komunikabide-esparruan sorturiko testu generoak: informaziozkoak, argudiozkoak nahiz arau-emaileak.

Laburbilduz, grafiko honetan jaso da hizkuntzaren funtsezko ekarpena oinarrizko konpetentzia metadiziplinar bakoitza garatzeko unean.

*7. irudia. Hizkuntza tresna nagusia oinarrizko konpetentzia metadiziplinarren garapenean*




Horiek guztiak ikusita, baiezta daiteke hizkuntz heziketak eta komunikazioaren heziketak, oro har, eskolaren zereginetan inoiz baino garrantzi handiagoa

hartzen dutela. Azpimarratzekoa da, halaber, ikuspegi berri horren harira ahozkotasunak eta bereziki elkarreraginerako ahozko diskurtsoak hartzen duen pisua. Bestalde, bizitzako egoerei eta beharrei erantzungo dieten hizkuntz konpetentzien garapen egokia ziurtatu ahal izateko, garbi dago egoera horiek ezin direla gela barrura mugatu, are gutxiago hizkuntzari dagokion arlora. Ikastolak kontuan hartzen ditu ikasleak bere inguruan bizi dituen askotariko hizkuntz esperientziak, eta guztiak era sistemikoan tratatu beharko ditu.

### 4.2.2. Metodologiaren oinarriak

Konpetentzia baldin bada egoera eta testuinguru zehatz batean eraginkortasunez aritzeko gaitasuna izatea, begi bistakoa da konpetente izaten ikasteko ezinbestekoa dela ikaslea egoera horien aurrean ezartzea; bai eta ikasleari, egoera horiei eraginkortasunez aurre egiteko ezagutzak barneratzeko aukera ematea. Perspektiba honetatik, ezagutzak eskuratzea beharrezkoa da, baina ez nahikoa, konpetente izateak urrats bat gehiago eskatzen baitu: eskuratutako ezagutzak modu integratu batean mobilizatzea eta transferitzea, egoera bakoitzaren ezaugarrien arabera. Eta prozesu hori ez da era automatikoan gertatzen, irakatsi eta ikasi egin behar da.

Ikaskuntza-prozesu hori bideratzeko hautatzen den metodologiak honako ezaugarriak izan behar ditu, baldin eta konpetentzien garapena bermatuko badu[2]:

- Ikaslea egoera konplexu eta esanguratsuen aurrean jartzea.
- Ikaslea bere ikaskuntza prozesuan protagonista izatea.
- Ikaslearengan gatazka kognitiboa eta sozio-kognitiboa sortzea.
- Ikasleari, hainbat egoeratan erabilgarriak izango diren edukiak eta baliabide kognitiboak eskuratzeko aukera ematea.
- Konpetentziak mailaka eta etengabe garatzea.
- Oinarrizko konpetentziak garatzeko beharrezkoak diren prozedurak arlo guztietan txertatzea.

Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegi horri ondo lotzen zaio Azpeitiko Ikastola Ikasberri luzaroan jorratzen aritu den aprendizaiaren planteamendua. Gure hezkuntza-marko orokorrak ikaskuntzaren teoria eraikitzailean ditu oinarriak .

[2] 'Euskal Curriculuma: Hezkuntza- eta curriculum-proiektuaren markoa' (2014?). Barne-dokumentua.

Teoria horrek elementu nagusi bat eransten dio ikuspegi eraikitzaileari; hau da, elkarreragin sozialak haur gaztearen garapenean duen funtsezko lekua azpimarratzen du. Ondorioz, gure hezkuntza-proposamenen ardatza ezagutzaren eraikuntza soziala bideratzea litzateke, ikaslearen beharretatik eta interesetatik abiatuz eta ikasle bakoitzaren ezaugarriak errespetatuz.

Konpetentzien garapenean oinarritutako hezkuntzaren inguruko hausnarketaren ondorioz, beste dimentsio bat gehitu diogu ikuspegi horri, hau da, gizarte-eraikuntza hori gertatzen den testuinguruarena, giza egoerarena. Aprendizaia, hortaz, hiru dimentsiotan garatuko da: maila indibidualean, ezagutza berriaren eta ikaslearen aurrezagutzaren arteko interakzioan; maila sozialean, irakasleekin eta ikaskideekin sortutako interakzioan; eta, azkenik, aprendizai hori gertatzen den testuinguruarekin interakzioan, bizi dituen egoerek ezarritako baldintzei erantzunez.

Ikastolak, beraz, aprendizaiaren ikuspegi hori islatzen duen testuingurua eskaini beharko du, ikasleek euren gaitasunak gara ditzaten testuinguru horrekin interakzioan. Hartara, ikastola ez da ‘ikasteko’ toki edo ‘ikasgela’ soil bat, baizik eta ikaslearen garapenerako testuinguru zabal eta anitza. Are gehiago, testuinguruaren ezaugarrien arabera ikasleen gaitasunak modu batera edo bestera, neurri batean edo beste batean, garatuko dira: ikasleen garapen-maila testuinguruaren ondorio da.

Horrenbestez, hizkuntzaren lanketa egokia, beraz, Hizkuntz Proiektua, lehentasunezko premia bilakatzen du ikuspegi berri horrek; alegia, ikaskuntza prozesuaren muinean interakzioa eta harreman sozialak (pertsonekin zein ingurunearekin) jartzen eta testuinguruaren eta egoeraren garrantzia azpimarratzen dituen ikuspegi horrek.

## 4.3.- **HIZKUNTZAREN ETA ELEANIZTASUNAREN IKUSPEGIA**

### 4.3.1.HIZKUNTZAREN IKUSPEGIA

Konpetentzien hezkuntza berriari hizkuntzei buruzko berezko ikuspegia dagokio. Europako Erreferentzia Markoan konpetentzien diskurtsoari bete-betean egokitutako ikuspegia datorkigu: gizarte ekintzara bideratutako ikuspegia.

Ekintzara bideratutako hizkuntzaren perspektiba ikas-irakaskuntzaren prozesura ekartzeko garaian, eta hortik ondorioztatzen den *testu-pedagogia*n dugu oinarria.
Testuak komunikazio-unitate osoak dira, komunikazio egoera bakoitzaren ezaugarrietara egokiturik zentzua eta forma hartzen duten hizkuntz unitateak. Horrenbestez, ikaslea egoera jakin batean eta helburu bat lortzeko hizkuntzaren bidez ekiten duen pertsonatzat hartuko dugu. Ekintza horren testuinguruan landuko dugu hizkuntza, bertan sortutako testuaren ezaugarri formalak zein eduki mailakoak landuz.

Testuen ugaritasuna amaigabea denez, testu-generoka multzokatu ditugu, gizarteko eremu desberdinetan betetzen duten funtzioaren arabera; genero horiek izango dira ikaskuntza-irakaskuntza prozesua antolatzeko baliatuko ditugunak.

### 4.3.2.- **EUSKARAN ARDAZTUTAKO HEZKUNTZA ELEANIZTUNA**

Ikusi dugunez, XXI. mendeko gizartearen beharrei behar bezala erantzuteko, kalitatezko hezkuntza eleaniztuna ziurtatzea da eskolaren zeregin nagusietako bat. Hezkuntza eleaniztun horrek bermatu beharko du euskal ikasleen oraingo zein etorkizuneko egoera pertsonalari,
akademikoari eta profesionalari begira aurreikus daitezkeen hizkuntz premiei aurre egiteko prestakuntza.
Hizkuntz aniztasunari dagokionez, ikastolek euskaran ardaztutako eleaniztasunaren aldeko hautua egin dute. Izan ere, egungo gizarte globalizatu honetan ezinezkoa da hizkuntza gutxitu bati eustea eta suspertzea, hizkuntza hori gizarteko hizkuntza bakartzat hartzen bada. Euskaldunen etorkizuna eleaniztuna da. Euskarak iraun ahal izateko, hizkuntza horrek nagusi izan behar du bere hizkuntz eremuan, baina, horrekin batera, euskaldunok beste hizkuntza batzuk hitz egiteko gai izan behar dugu. Bestela, euskara bera arriskuan egongo litzateke.

Ondorioz, helburu nagusia bi osagaiak elkartzea da: batetik, euskarak bere hizkuntz eremuan behar duen garapen osoa lortzea eta, bestetik, euskaldunak beste hizkuntzak hitz egiteko
gai izan daitezen lortzea.

Beharrezkoa izango da Euskal Herrian bizi direnek euskararen normalkuntzarekiko konpromiso aktiboa hartzea eta euskara hizkuntza nagusitzat hartzea. Gainera, hizkuntza
sakonki ezagutu eta behar bezala erabiltzen jakin beharko dute. Horrekin batera, gai izan beharko dute nazioarteko komunikazioaren baitako hizkuntza nagusietako bat menderatzeko. Azkenik, Estatuen arteko mugaren bi aldeetara dauden bi elkarteen kultur batasuna lortzeko, beharrezkoa izango da herritarrek beste Estatuko hizkuntza nagusiari buruzko funtsezko ezaguerak izatea.

Halako konplexutasunari aurre egitea ezinezkoa litzateke lau hizkuntzen curriculumak bata bestearen ondoan, era paraleloan, eta bakoitza osotasun guztiz bideratu nahiko bagenitu. Aitzitik, curriculumok era bateratuan landuko ditugu. Horren aburuz, hizkuntza horietako bakoitza ez da bere kabuz garatzen, beste hizkuntzekin inolako harremanik gabe; aitzitik, hizkuntza bakoitza modu integratuan garatzen da. Hala, bada hizkuntza gaitasun orokor bat, hizkuntzen arteko konparaketa, kontrastea eta horien arteko etengabeko elkarrekintza kudeatzen duena. Gaitasun nagusi hori sustatzea funtsezkoa da gaitasun eleaniztun integratua eta orekatua sortu ahal izateko.

Hizkuntzak ez dira era osoan eta abstraktuan garatzen pertsona elebidun edo eleaniztunarengan, baizik eta bizitzan sortzen zaizkion egoeren eta eginbeharren arabera garatzen dira. Hizkuntza jakin batean garatuko duen komunikazio-konpetentzia,
bestalde, ez da guztizkoa izango edo betiko emango, baizik eta erabileraren baitan gorde, zabaldu edo galduko da.

Gure ikastolaren eleaniztasun-eredu dinamikoak honako hautuak eginak ditu, helburutzat dituen hizkuntzak garatzeko orduan:

• Euskara hartzen du eskolako komunikazio- eta ikasketa-hizkuntza nagusi gisa, eskola barruan ahalik eta komunikazio eremu gehien harentzat gordetzeko nahian.

• Gaztelaniaren kasuan, gizartean duen lehentasuna aintzat hartuz, bigarren hizkuntza gisa hartuko du, eta bereziki ikasketa-munduarekin loturiko erabilera formalak indartzeari begira egingo da lana.

• Era berean, nazioarteko hizkuntzei gagozkielarik, hizkuntza horiekiko momentuan duten erabilera-testuinguru naturala baliatuko dugu hizkuntza lana bideratzeko, ikasleen benetako komunikazio aukerak eta testuinguruak kontuan hartuz; hau da, eskola eta eskola-ekintzak izango dira gure helduleku nagusia. Inguru horretan, halere, hautatutako bi hizkuntzen trataera oso desberdina izango da. Ingelesaren kasuan, globalizazioaren gizartean hartu duen *lingua franca* papera ikusirik, hizkuntza hori lanerako edo ikasketak jarraitzeko testuinguruarekin lotuko dugu; ez ditugu kultura anglofonoaren osagaiak aintzat hartuko.Frantsesari dagokionez, ordea, mugaz bestaldeko komunitatearekin harremanetan jartzeko helburuarekin landuko denez nagusiki, ikuspegi kultural eta funtzionalago batekin garatuko da proposamena.

### 4.3.3. Eskolaren zeregina euskara indarberritzeko prozesuan

Bi hitzetan laburbil daiteke euskararen egoera soziologikoa: normalizazio-bidean dago euskara; zehatzago esanda, normalizazio sozialaren eta hizkuntz normalizazio bikoitzaren beharra du. Normalizazio soziala, euskaldunek gutxiengoa osatzen dugulako Euskal Herrian; hizkuntz normalizazio bikoitza, garabidean delako bai erabileraren aldetik (oraindik berria zenbait gizarte-esparrutan), bai corpusaren aldetik (egiten ari da esparru batzuetako lexikoa, eratzen sintaxia…). Hala, bada, motibazio eta ahalegin handiagoa eskatzen digu egoera horretan euskara eta euskaraz ikasi eta irakatsi behar dugunoi; teorian bete beharko genituzkeen funtzioetatik haratago joatea eskatzen du, hau da, hizkuntz normalizatzaile ere izatea; normalizatzaile sozial eta linguistiko izatea, alegia.

Hizkuntzaren normalkuntza-prozesu luze eta konplexu horretan gizarte-eragile guztien partaidetza nahitaezkoa bada ere, "eskola da hizkuntza baten normalizazio-prozesuaren zutabe eta eragilerik oinarrizkoenetakoa" (EHIE, 1991, 27. or.). Horren erakusle da, esaterako, Ortega eta al. (2016:16) ikerlanean hiztun-tipologiaren bilakaeraz diotena:

> "1991an euskaldun gehienak adin-tarte guztietan natiboak ziren, euskaldun zaharrak. Hamarkada bi geroago, 2011n, berriz, hiztun berriek osatutako taldea

> oso garrantzitsu bihurtu da, batez ere gazteen artean. 16-24 adin-tartearen biztanleriaren %60 euskalduna da, eta haietatik erdia baino gehiago hiztun berriak, gehienek murgiltze-ereduetan ikasitakoak. (…) 2036an 24 urtetik beherakoen artean herritarren gehiengoa (%83,4) euskalduna izango da (Baztarrika eta Erize, 2016)”.

Egungo eta etorkizuneko hiztun-tipologiaren ezaugarriak arestian aipatutako eleaniztasunaren ikuspegi dinamikotik irakurriz gero, hiztun horiek eskolarekin lotutako hizkuntzak eta hizkuntza erregistroak garatuko dituztela aurreikus daiteke. Aldiz, eskolarekin lotuta ez dauden erregistro ez-formalen garapena, testuinguru soziolinguistikoak eskaintzen dizkien aukeren araberakoa izango da. Are gehiago, eskolaldia amaitu ondoren, testuinguruak (aisialdiak, lan munduak, …) ez badu euskara erabiltzeko aukerarik edo beharrik eskaintzen, euskarazko komunikazio-konpetentzian atzera pausoak egongo dira; bizitzan zehar aldatu egiten den prozesu dinamikoa baita hizkuntzaren eta eleaniztasunaren garapena.

Ildo beretik doa azken urte hauetan Hizkuntza Sozializazioaren ildotik garatutako ikuspegia (Kasares, XXX?; Martinez de Luna, 2013):

> “(…) sozializazio kontzeptuak dioenez, gizakiok ez gara gizarteko kide jaiotzen, egin egiten gara, prozesu luze baten ondorioz (…). *Era berean esan dezakegu gizakiok ez garela hiztun-komunitate bateko kide jaiotzen, egin egiten gara, horretan ere, prozesu luze baten ondorioz*[3]”. (Martinez de Luna, 2013).

Martinez de Lunak dioenari jarraituz, prozesu horretan murgildu ahala, eta hizkuntza komunikazio tresna gisa erabiliz, gizakia hizkuntzaz jabetuko da hizkuntza hori erabiltzeko gauza izatera iristeraino eta hizkuntza komunitate horretako kide bihurtzeraino. Gurea bezalako gizarte elebidun edo eleanitzetan, sozializazio elebidunaz edo eleaniztunaz hitz egin beharra dago eta honakoa kontuan hartu beharra dago:

> “Sozializazio elebiduna duten haurrek bi hizkuntza ikastearekin batera, bi kode nola erabili, non, norekin eta zertarako; bi kodeak noiz bereizi eta noiz nahasi ere ikasten dute.” (Kasares, Paula).

[3] Kurtsibak jatorrizko artikuluan ageri dira.

Hizkuntza Sozializazioaren ikuspegitik, beraz, hobeto uler daitezke euskararen erabileraren eta euskararekiko jarreren arteko erlazioa, bai eta euskararen erabileran eragiten duten faktoreen arteko elkarreragina[4].

Ondorioz, normalizazio prozesuan eragin nahi duen eskolak, plangintza integrala eta estrategikoa indarrean jarriz lortuko du eta ez ekintza bakartuen bidez. Planaren osagaien artean, lan honen hastapeneko dokumentuan (Aldasoro et al. 2002) zerrendatzen ziren esparruak ekartzen ditugu gogora: euskararen eta euskarazko irakaskuntza indartu; etorkinak integratzeko berariazko bideak asmatu; euskararen kalitatea zaindu eta eredu ona erakusten ahalegindu; euskararen erabilera elikatu; euskara eta euskal kultura ardatz izanik, kulturaniztasuneko eta eleaniztasuneko planteamenduak indartu eta hedatu.

Zeregin horiek betetzeko lehen baldintza litzateke euskararen indarberritzea hezkuntza-komunitate osoaren arduratzat hartzea.

Hartara, ezinbestekoa da eskola-eremu guztietako eragileen arteko harremana eta koordinazioa sustatzea. Lan iraunkor, kohesionatu eta sistematizatua ahalbidetuko duen egituraketa finkatu behar da. Inguruabar horretan, eskolan hizkuntzekiko egon litezkeen esku-hartze eremuak kontuan izanik, bakoitzean eragile d(ir)ena(k) edota abian jarri ahal izateko.

Horrekin batera, ikastolak hizkuntz politika eraginkorra bideratu beharko du ingurune hurbila kontuan hartuz. "(…) guk euskararen geroa, geure baitarik, ezin dugu ziurtatu besterik gabe. Horretarako, gizartearen laguntza eta berarekin aritzea behar-beharrezkoak ditugu" (Osa, 2004). Bide horretatik, alegia, gelaz kanpoko eremua nahiz eremu instituzionala eskola-esparru gisa begiztatuz (inolaz ere ez saihestuz), lor dezakegu astiro-astiro hizkuntza gutxituarekiko atxikimendua sendotzea eta, ondorioz, haren erabileran aurrerapenak

[4] Erabileran eragiten duten faktoreen inguruan ikusi: Erabileraren GPSa, Soziolinguistika Klusterra.

nabaritzea. Horrela, bestelako gizarte-eragileengan zein askotariko instituzioengan ere eragin beharko du, haiekin lankidetzan jarduteaz gain.

> "Eskola da hizkuntza baten normalizazio-prozesuaren zutabe eta eragilerik oinarrizkoenetakoa. Bere eginkizuna, ordea, erlazionatuta egongo da euskal gizarteko beste sektore guztiekin, interakzio-prozesu batean, non eskola izango baita euskalduntzearen bultzatzailea. Baina, aldi berean, gizarteak bere egoera egokitzen joan behar du hizkuntza errealitatera, bai gaurkora eta bai etorkizun hurbilekora. Administrazioa eta gizartea, orokorki, ezin dira mugatu gaurko eskaerari erantzuna ematera, planifikatu egin behar dute eta baldintza egokiak sortu gaur eskoletan euskalduntzen ari diren haurrek, bizitza sozialeko edozein esparrutan, beren ahalmenak euskaraz garatu ahal izan dezaten biharko egunean" (EHIE, 1991, 27. or.).

Laburtuz, gure ikastolaren xedea, bizitzako zeregin askotarikoetarako kalitatezko euskara irakasteaz gain, gizartean eragitea ere bada, eta baita euskararen sustatzaile izatea, hiztun euskaldunon komunitatea sendotzea, eta erabilera-eremuak irabaztea ere.

### 4.3.4. Hizkuntz eta kultur aniztasunari erantzuna: kultur integrazio barne-hartzailea

Diagnostikoaren atalean erakutsi bezala, gaur egungo aniztasunaren eta mugikortasunaren gizarteak erronka berriak ezartzen dizkio euskararen eta euskal kulturaren biziberritze-prozesuari. Desegokia litzateke prozesu hori kultur eta hizkuntz testuinguru zabal horretatik at planteatzea. Aitzitik, euskara eta euskal kultura gaur egungo gizartearen aniztasunean parte izanik, elkarbizitzarako ardatz bezala garatu nahiko genuke.

Hizkuntz eta kultur aniztasunari erantzuna emateko garaian, Azpeitiko Ikastola Ikasberrik *kultur integrazio barne-hartzailearen* hautua egin du.

Ikuspegi horren baitan ez dago etorkinik edo atzerritarrik, ez dago erdaldunik edo euskaldunik, ez dago "desberdinik". Ikasle bakoitzak bere ezaugarriak dauzka eta eskolak hartzen ditu diren bezala, "ikasle estandarraren edo

idealaren" irudi hipotetikoarekin konparatu gabe. Familia atzerritarra edo erdalduna edukitzea "aniztasuna" da, hainbaten artean (generoa, klase soziala, gaitasunak, interesak, ikas-estiloak eta abar). Eredu inklusiboak ikasleei "identitate anitzak" garatzeko aukera eskaini behar die. Horrek esan nahi du ikasle guztiei hemengo sentitzen lagundu behar diela. Ez da eskolaren ardura familiaren jatorrizko identitatea eraikitzea, baina bai eraikitze horri eskolan lekua egitea eta modu positiboan balioestea. Horrenbestez, euskara haiena ere bada, euskara haien kultur ondarea da.

Hala, eskola barne-hartzaileak ateak irekitzen dizkio hizkuntz eta kultur aniztasunari, aniztasunaren erronka era baikorrean ikusiz; aukera berri gisa ikusten da gure kultura eta hizkuntza biziberritu dadin, modu horretan euskararen hiztun eta erabiltzaile berriak irabaziz. Eskola barne-hartzailea, beraz, euskara eta euskal kulturarentzat abagunea da; euskarak biziraun nahi badu, isolamendutik gaindi beste hizkuntzekin eta kulturekin bizi beharko du, mestizaian; izan ere, Fishmanen esanak gogoratuz, ezinezkoa da hizkuntza gutxitu bat bera bakarrik mantentzea eta indarberritzea. Eskola barne-hartzailearen ikuspegitik, euskarak integratzeko tresna izan behar du, eta ez baztertzaile. Izan ere, euskara aukera berdintasuna lortzeko bidea izango da, gure kultur aberastasuna ezagutzeko bitartekoa, berdinekin hartu-emanak izateko tresna, gizarte-integraziorako zubia, baita inguru erdaldunetan ere. Horretarako, euskara eta euskal kultura maitatzen erakutsi behar zaie ikasleei, guztiek jarrera baikorra eta atxikimendua beregana ditzaten.

Alabaina, hori ezingo genuke egin ikasleek dakartena arbuiatuz. Aitzitik, eleaniztasun prozesua aberastu egiten da ikasleen jatorrizko hizkuntzari keinuak eginez; jatorrizko hizkuntzari eskola-giroan espazioa aitortzeak hizkuntza berria ikasteko jarrera baikorra sustatzen du.

Laburbilduz, kultura eta hizkuntza aniztun ikasleak ikastolan partaide izatearen aldeko gara eta egoera hori gure hezkuntza-eredua gizarte berrira egokitzeko *irtenbidearen* parte modura ikusi nahi dugu, eta ez konpondu beharreko *arazo* modura, Cummins-en ikuspuntuarekin bat etorriz.

## 4.4. Hizkuntzaren ikaskuntza-irakaskuntzaren ikuspegia

### 4.4.1. Komunikatzen ikasi konpetentzia orokorra

Aurreko ataletan aurkeztu ditugun Hezkuntzaren eta Eleaniztasunaren ikuspegiei erantzunez, Azpeitiko Ikastola Ikasberriren hizkuntzekiko xedea honakoa dugu: *Ikasleen komunikazio-konpetentzia garatzea, euskararen aldeko hautua egin dezaten eta, hautu horretan oinarrituz, hizkuntzak bizitzako egoera eta behar guztietarako tresna eragingarri gisa erabil ditzaten.*

Horrenbestez, hizkuntzen ikas-irakaskuntza prozesua oinarrizko konpetentzien mailan jarriko dugu, "**komunikatzen ikasi**" konpetentziaren osagai nagusi modura[5]. Hartara, ikastolako eremu guztiek partekatutako prozesua izango da, eremu bakoitzean sortzen diren era guztietako komunikazio-egoerek berariazko testu-generoak (berezko hizkuntz ezaugarriekin) eta hizkuntz eskakizun bereziak izango baitituzte, gizarte-ekintza jakin horietan txertatuta bakarrik landu eta ikas daitezkeenak. Bestela esanda, ikastolaren komunikazio-testuinguruko eremu bakoitzak eta bertan partaide den hezkuntza-komunitatearen kide bakoitzak (ikasle, profesional zein gurasok) egingo dio ekarpena ikaslearen komunikazio-konpetentzia orokorrari, eta guztietan eragin beharko dugu hura garatu ahal izateko.

Hala izanik, hizkuntz arloaren ardura izango da ikaslearen bizitzako egoera guztietako hizkuntz jardueren gaineko hausnarketa lana eta ikasketa-lan

[5] Euskal Curriculumak proposatzen dituen oinarrizko konpetentzien inguruan, ikus: A. A. (2005, 2008)

sistematikoa bideratzea. Horrela, arloaren eduki nagusiak izango dira bizitzaren eremu eta egoera ezberdinetan sortutako testuak. Alabaina, testu horien testuinguru naturalak ere hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzarako gune bihurtu beharko dira, 'komunikatzen ikasi' konpetentziaren garapenean era kontzientean eraginez.

Esate baterako, eremu akademikoari dagokionez, irakasle bakoitzak bere arloak berezko hizkuntz beharrei erreparatu beharko die, honako hauek hartuta arloko curriculumeko funtsezko osagai gisa: arloari dagozkion operazio kognitibo-linguistikoak, arloaren testu-mota ohikoenak eta horiei arrakastaz aurre egiteko ikasleak erabili beharko dituen eduki eta prozedura nagusiak. Bestela esanda, 'komunikatzen ikasi' konpetentzia arloan txertatu eta landu beharko du.

Era berean, gela barruko interakzioa hizkuntzaren jabekuntza eta garapenerako esparru garrantzitsutzat hartu beharko da. Interakzio didaktikoak hizkuntzaren erabilera bultzatzeko eta ahozko elkarreraginezko generoak bideratzeko eskaintzen dituen aukerak behar bezala ustiatu ahal izateko, arlo guztiak eta arloetako irakasle guztiak bilduko dituen plangintza koordinatua beharko du.

Horrekin batera, eskolaz kanpoko eta aisialdiko egoeretan ere modu hausnartuan jokatu beharko da, pertsonarteko harreman ez-formalen hizkuntz ereduak eta konpetentziak garatu ahal izateko. Egoera horietan eragiteko baliabide pedagogiko eta didaktiko espezifikoak garatu beharko dira, eta bertan ari diren pertsonen prestakuntza ere bideratu beharko da.

Azkenik, era zorrotzean finkatu beharko dira eremu instituzionalak egoera guztietarako biltzen dituen hizkuntz irizpideak; beharrezkoa izango da hori ikastolako bizitzan sortzen diren barne- zein kanpo-harreman guztiak euskaraz gerta daitezen ahalbideratzeko eta, horrela, ikasleek hizkuntza erabiltzeko izango dituzten aukerak areagotzeko. Bereziki, aparteko garrantzia eskainiko

zaie familiekin batera lan eginez euskararen bidezko sozializazioa bultzatzeko sor daitezkeen ekimen guztiei.

Ikasleak bere hizkuntz gaitasuna komunikazio-eremu horietan guztietan era egokian gara dezan lagundu nahi badugu, irizpide-marko komun baten beharra dugu horietan guztietan era bateratuan eragin ahal izateko; marko hori Hizkuntz Proiektuak eskaini beharko du, hain zuzen ere.

Jarraian, eremu pedagogikoaren baitako azpi-eremuek **komunikatzen ikasi** konpetentziari egin beharreko ekarpenak azalduko dira.

### 4.4.1.1. GELA BARRUKO EREMUAN HIZKUNTZA BEHARRAK

Gela barruko esparru akademikoari dagokionez, hizkuntzaren garapen egokia izango da arrakasta akademikoaren giltzarria, hura baita ikaste-irakaste prozesu ororen tresna nagusia. Beraz, arlo guztietan nahitaezkoa izango da informazioaren ulermenarekin eta prozesatzearekin nahiz informazioaren egituratzearekin eta komunikatzearekin erlazionatutako gaitasun kognitibo-linguistikoak garaturik edukitzea; baita ikasketa-eremuarekin loturiko informaziozko nahiz argudiozko testu-generoak menderatzea ere.

Ikuspegi hori areagotu egiten da konpetentzien hezkuntza-ereduari begira. Edozein
arlotako zereginetan konpetentzia edukitzea ez da hainbat datu edo gertaera ezagutzea
eta haiek errepikatzeko gai izatea soilik. Konpetentzia izateko beharrezkoa da, horretaz gain, gero eta informazio kopuru handiagoa eta konplexuagoa eskaintzen duten askotariko iturriak
kudeatzen jakitea. Hau da, ikasleek jakin behar dute informazioa bilatzen, helburua kontuan hartuta egokia dena hautatzen, informazioa prozesatzen eta, iritzi propioa garatuz, haren balioespen kritikoa eta erabilera sortzailea egiten. Era berean, ezagutzaren eraikuntza sozialak ideiak eta ezagutzak besteenekin alderatzea eta besteekin batera garatzea eskatzen du. Ikasleek besteekin elkarlana egin beharko dute ezagutza berria eraikitzeko, norberaren ideiak eta ezagutzak azalduz, besteenekin erkatuz, eta argudiatuz.

Prozesu kognitibo horiek guztiak ahozko nahiz idatzizko hizkuntzaren bidez gauzatzen dira batik bat. Konpetentzia kognitibo-linguistiko horiek oinarrizkoak dira ikaskuntzaren eremuan arrakasta izateko eta pentsamenduaren nahiz ezagutzaren garapenerako. Hartara, jakintza-
arlo guztien bidez garatu behar dira, bakoitzak berezko prozedurak nahiz testu-generoak baititu (laborategiko esperientzia baten deskribapena, matematikako buruketa baten formulazioa, narrazio historikoa, gertaera sozialen edo fisikoen azalpena eta abar.)

Ondorioz, hizkuntza era kontzientean irakatsi behar dute irakasgai guztietako irakasleek. Horretarako, batetik, ikasgelaren komunikazio-ingurunea hizkuntza hobetze aldera antolatu behar da, hizkuntza ekoizpena sendotzeko eta garatzeko izan daitezkeen aukerak ahalik ongien aprobetxatzeko. Bestetik, irakasgai bakoitzari dagozkion testu-mota eta hizkuntz konpetentzia horiek argi eta garbi integratu behar dira arloaren curriculumean, ez bakarrik
hizkuntza irakasteko, baita irakasgaia bera irakasteko ere, hizkuntza baita irakasgaiko
edukiak eskuratzeko tresna nagusia. Horrenbestez, ebaluazioan kontuan hartu beharreko atala izango da arloari dagokion hizkuntz ekintzen kalitatearen eta eraginkortasunaren balioespena.

### 4.4.1.2. HIZKUNTZA ARLOAREN TRATAERA

Esan bezala, hizkuntz arloaren helburu nagusia da bizitzako zeregin askotarikoetan
ekiteko ikaslearen komunikazio-konpetentzia garatzea. Helburu horri erantzunez,
Hizkuntzak eta Literatura arloaren curriculumaren oinarria hizkuntzaren ikuspegi diskurtsiboan datza; bestela esanda, hizkuntza erabiltzen ikastea izango da konpetentzien definizioaren zein edukien hautaketaren oinarria.

Ondorioz, eduki nagusiak testu-generoak izango dira , horietan gauzatzen baitira edozein eremutako gizarte erabilerak. Halaber, hizkuntzaren sistema aztertzeko erabilera horien hausnarketan oinarritu beharko da, baita horietatik sortutako testuekin egindako lanean ere. Izan ere, hizkuntz deskribapena ezin da egin era abstraktuan, giza ekintzatik at. Aitzitik, hizkuntz erabilera egituratzen duten parametro sozial eta kulturalak kontuan harturik bakarrik egin daiteke.

- ***Hizkuntzen ikuspegi bateratua: curriculum integratua***

Arestian aipatu bezala, ikastolak euskaran ardaztutako eleaniztasuna garatu nahi badu,
ezinbestekoa izango da hizkuntzen ikuspegi integratzailea eta horrekin batera doan curriculum bateratua gauzatzea.

Alde horretatik, curriculum proposamen bakar batean bildu dugu hizkuntza guztien ikaskuntza-irakaskuntza, ikasi beharreko hizkuntza guztiak barne-hartzen dituen curriculum integratuaren diseinuaren bidez. Horrela, ikaskuntzaren osagarritasuna ahalbidetzen da, baita hizkuntza bakoitzak dituen berariazko hizkuntza alderdiak alderatzeko lana eta hizkuntza batean ikasitakoa beste hizkuntza batzuetan aplikatzea ere.

Ondorioz, arloaren konpetentzia nagusien eta blokeen definizioa eta oinarrizko edukiak aukeratzeko irizpideak berberak izango dira curriculumaren baitako hizkuntza guztientzat; horrela, horien garapen osagarria bermatuko da. Berariazko konpetentziak definitzean eta,
bereziki, horiek ebaluazio-irizpideen bidez definitzen direnean, hizkuntza bakoitzaren lorpen-maila zehatuko dugu.

- ***Metodologiaren ikuspegia***

Arestian esan dugun moduan, irakaskuntzan ikuspegi diskurtsiboa hartzea eskatzen du Hizkuntzak eta Literatura arloaren curriculuma hezkuntza konpetentzia orokorren arabera diseinatzeak; horren bidez, hizkuntzen lanketa komunikaziotik eta erabileratik abiatuz planifika daiteke. Ikuspegi horren arabera, hitz egitea eta idaztea hauxe da: komunikazio testuinguruaren baitan, helburu batzuk lortzera bideratzen diren testuak eraikitzea. Horrek zuzeneko eragina du metodologia erreferentzia jakin batzuk aukeratzerakoan; hain zuzen ere, ezaugarri hauek oinarrizkoak dira:

— Ikasleentzat esanguratsuak diren komunikazio-proiektuek bideratutako ikaskuntza-prozesua.

— Testua komunikazio-unitatea da. Testu-genero bakoitzak berariazko ezaugarriak ditu, beraz, bere ulermen eta ekoizpenerako ikaskuntza espezifikoak eskatzen ditu.

— Ikaskuntza sekuentzia didaktikoetan egituratzea, jarduerak komunikazio-lan zehatz bat lortzera bideratutako helburu didaktiko batzuen inguruan antolatuz eta artikulatuz.

— Prozedurak eta goi mailako estrategia kognitiboen garapena nagusitzen dira; hizkuntz ezagutza lortzeaz eta ezagutzak aplikatzeaz gain, hitzekin gauzak egiten jakitea da helburu nagusia.

— Ezagutza instrumentala eta formala prozesu bakar batean barneratzea. Gramatika-hausnarketaren abiapuntua da landuko den testua; ezin dira bereizi komunikazio-ekintzaren helburua eta testuingurua, adierazi beharreko edukia eta horren arabera erabili beharreko hitzak eta moduak.

— Ikasleen artean eta irakasleen eta ikasleen artean elkarreragina ikuspegi diskurtsiboak
zuzeneko eragina du metodologia erreferentzia jakin batzuk aukeratzerakoan indartzea, ikasgela komunikazio-testuinguru erreal bihur dadin, eta bertan lankidetzazko ikaskuntza indartu dadin.

• ***Ebaluazioaren ikuspegia***

Ikusi dugun moduan, komunikazio-konpetentziaren garapena xede duen hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzak helburuen eta edukien trataeran aldaketa sakonak eta hautu metodologiko jakinak eskatzen ditu. Ebaluazioa litzateke eraldaketa kate horren funtsezko begia; azken finean, bertan hartutako erabakiek atzerakako eragin handia dute, "zer ebaluatu, hura irakatsi" esaera ezagunak dioen moduan. Hala, ebaluatzeko moduek eta erabilitako irizpideek markatzen dute, ezinbestean, curriculumaren garapen osoa.

Horrenbestean, ezagutzen ebaluaziotik konpetentzien ebaluaziora doan bidea egitea funtsezkoa izango da, hizkuntzen irakaskuntza-ereduaren eraldaketa arrakastaz egin ahal izateko. Ebaluazioaren funtzioak, formatua, partaideak, edukiak, neurketa adierazleak... elementu guztietan sortu da berrikuntza esanguratsuak egiteko beharra (hizkuntzen ebaluazioan zein beste edozein arlotako ebaluazioan).
Honako ezaugarriak beteko ditu Hizkuntz Proiektu honetan proposatutako ikuspegiari erantzungo dion ebaluazioak:

• **Hezitzailea**: heziketa prozesuaren muinean kokatzen dena, eta ez azken muturrean soilik.

• **Integrala**: konpetentzia komunikatiboaren osagai guztiak kontuan hartuko dituena.

• **Kontestualizatua**: hizkuntza giza ekintza jakin baten komunikazio-testuinguruan txertatuta aztertuko duena, eta ez elementu formal abstraktu gisa.

• **Testuala**: hausnarketa-unitate gisa, giza ekintza horren baitan sorturiko testua izango duena.

• **Anitza**: osagai eta egoera bakoitzeko ebaluazio-une eta –mota egokiena erabiliko duena.

• **Prozesuala**: aprendizaien erregulatzaile-funtzioan oinarritutakoa.

• **Partekatua**: elkarrekintza ardatz izanik, ikasleari partaidetza eskainiko diona.

**4.1.1.3. Gelaz kanpoko eremuaren ekarpena**

Ikasleen bizitza esparru guztietarako baliagarria den hizkuntza garatzen laguntzeko ardura hartu duen eskolak ezin du hizkuntzaren arloan egindako lanera mugatu, ez eta gela barruan beste arloetan garatu daitekeen eremu akademikora ere. Horietaz gain, garrantzi berezia eskaini beharko zaio gelaz kanpoko eremuari[6]. Esparru horretan eragiteko arrazoi nagusia, eskola-giro osoa euskararen arnasgune bihurtzea da, nahiz eta beste hizkuntzek ere lekua hartuko duten. Helburua, beraz, gure ikastola euskararen bilgune bihurtzea da, ikasleek gelatik atera orduko beraien artean euskaraz egiten jarrai dezaten segurtatzeko edo bultzatzeko; horretarako, egoera interaktiboak ugaritzeko aukerak eskainiko dira eta euskara haur eta gazteek gustuko dituzten jarduerekin lotuko da.

Aipatutakoa betetzeko, jakina, askotariko jarduerak euskaraz eskaintzea izango da lehen baldintza. Baina horrekin ez da nahikoa; egiten dugun eskaintza

[6] Gelaz kanpoko eremua osatzen du eskola-orduz kanpoko edo gelatik kanpo eskola giroan garatzen den edozein jarduerak. Hala nola, jolas-garaiak, ibilaldiak, ikastolako sarrera-irteerak, kanpaldiak, aisialdiak, eskola-orduz kanpoko kirol eta kultur ekintzak, bestelako ikasketak (musika, hizkuntz gaikuntza…) eta abarrek.

euskararen erabilera indartzeari begira benetan eraginkor eta baliagarri den ziurtatu beharko genuke.

Eremu horretan ere euskara helburu nagusia bada, ezin esan gelaz kanpoko eremua laguntza hutsa denik, zerbitzu hutsa denik; esparru pedagogikoa izateaz gainera, didaktikoa ere badela azpimarratu beharra dago. Adierazten ari garenaren arabera, eta konpetentzien hezkuntzaren planteamendutik, komunikatzen ikastearen konpetentzia txertatuta geneukake jarduera horietan guztietan (gainerako konpetentzietarako aterpea ere eskaintzen du, garapen integralaz hitz egingo badugu). Eskolaz kanpoko eremuaren xede nagusia euskararentzat espazioa irabaztea den momentutik, eta lan horrek etekinak izatea nahi bada, berezko planteamendu didaktikoa beharko du, oraindik ere garabidean dagoena. Alegia, ekintza bakoitzak bere programazioa beharko du, bere sekuentziazioa; helburuak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa beharko ditu, bai eta horiek aurrera eramateko egitura ere.

Planteamendu didaktiko hori garatzeko kontuan hartu beharko da euskararen indarberritzean eskolak duen zeregina eta esku-hartze eremu guztien arteko koherentzia zaintzearekin batera, irizpide metodologiko orokorretan eta profesionalen prestakuntzan eragin beharko da.

Horrenbestez, hauek dira ikuspegi horren arabera gelaz kanpoko eremuaren helburu zehatzak (jada helburu pedagogikoen eta didaktikoen aitormena eginda):

- **Ahozko elkarreragina segurtatzea eta bultzatzea.** Eskolaz kanpoko jarduerek ikasleen hizkuntz portaeretan eta hizkuntz jabetze mailan benetako eragina izan dezaten, kirol, dantza edo jolas-jarduera horietan ahozko elkarrekintza egokia gerta dadin ziurtatu behar dugu; horretarako, komunikazio-egoera erreal horien baldintzetan eragin behar dugu.

  Hartara, gelaz kanpoko jardueren ingurune soziala antolatu eta planifikatu beharko dugu, partaideen arteko elkarreragina (eta, ondorioz, hizkuntz

erabilera) bultzatu nahi badugu. Horrek, eremu horretan naturalak diren egoeretatik abiatuta, ahozko jardunaren diseinua egitea eskatzen du; ikaslearen eta hezitzaileen arteko harremanez hausnarketa egitea, lan-estrategiak adostea eta lantzea, eta abar. Hau da, ekintza horien "curriculuma" idaztea, gela barrurako garatu diren hainbat proposamen metodologiko euskarri gisa harturik.

- **Hezitzaile guztiak hizkuntz irakasle.** Hizkuntzaren alderdirik adierazkorrenak erabiltzeko aukera ematen du eremu honek, harremanak libreagoak izanik lagunarteko hizkuntza nagusitzen baita. Bertan izaten diren komunikazio-egoerak informalak eta familiarrak izan ohi dira. Horrenbestez, euskararen lagunarteko erregistroa bideratzeko ezinbesteko helduleku bihurtzen zaigu. Baina, hizkuntzarekin jolastu eta ondo pasa daitekeela sinestarazteaz gain, gazteei beharrezko hizkuntz erregistroak irakatsi behar zaizkie; horixe da eremu ez-formaletan eragile direnen zeregina. Hizkuntza-egoera horietarako ikasleek behar duten hizkuntz corpusa zaindu eta landu beharko da: jarduerak eskatzen duen euskara teknikoa, eta testuinguru soziolinguistikoak eta adinak eskatzen duten hizkuntz erregistroa, besteak beste.

- **Hizkuntz jarrerak eta portaerak lantzea eta adostea.** Gizartean leku gutxi duen hizkuntza bati eusteko, era esplizituan eragin beharra dugu jarreretan; izan ere, hautu kontzientea behar da hainbat esparrutan, hainbat egoera eta funtziotarako hizkuntza gutxitua erabiltzeko. Horrekin batera, argudioak eraiki beharra dago hizkuntza gutxituarekiko aurreiritzi negatiboei edota horren aurkako diskurtso asimilatzaileei aurre egiteko; beti ere, kontuan hartu behar dira jarreren lanketan eleaniztasun eta kulturaniztasun kontzeptuak ere.

> Horretarako, eremu honetan izaten diren komunikazio-egoeretatik abiatuta, ezinbestekoa da hizkuntz jarrera eta portaeren tipologia identifikatzea eta horien lanketa planifikatzea. Lanketa horren ondorioz garatuko dira bilatzen ditugun hizkuntz portaerak, eta baliagarri izango dira hizkuntzen ikasketa prozesuan eragiteko, egoera soziolinguistiko desberdinak ulertzeko eta bizikidetzan aurrera egiteko.

Horrenbestez, ikastolako Hizkuntz Proiektuak ekarriko du euskararen erabilerari dagokionez aurreko lerrootan aipaturiko ikuspegia eta filosofia integratzea, gelaz kanpoko eremuari beste kokapen bat ematea eta, ondorioz, eskaintzen diren zerbitzuen ezaugarriak aztertu eta planteamendu didaktikoei tokia egitea. Gainera, gelaz kanpoko eremurako ikastolak egindako hausnarketa hori beste eremuetan eginikoarekin bateratu beharko da, lan iraunkor, kohesionatu eta sistematizatua ahalbidetuko duen plangintza finkatzea nahi bada. Izan ere, euskararen indarberritzea eta erabilera sustatzea ez da soilik irakasleena, hezkuntza-komunitate osoarena baizik.

### 4.4.2. Hizkuntz dibertsitateari eta kalitateari begira, erregistroen trataera[7]

Nolako euskara behar da, esku-hartze eremu desberdinetan sortutako komunikazio-testuinguru anitzei erantzuteko? Azpeitiko Ikastola Ikasberriren barruan, kezka nagusietako bat izan da betidanik euskararen kalitatea zaintzea eta eredu onak irakastea. Azken batean, hizkuntza erabiltzea eta erabileraren egokitasuna ezinbesteko oinarriak dira hiztunen komunikazio-gaitasuna ahalik eta ondoen garatzeko. Horrexegatik da hain garrantzitsua hizketa-molde edo hizkuntz erregistro bat baino gehiago lantzea eta sustatzea, ikasleak bere

---

[7] Gai hau luze-zabal jorratu dugu *Zenbait orientabide erregistroen trataeraz* liburuan (Barrios et al., 2008); besteak beste, alderdi hauek: erregistroak zer diren, erregistro bakoitzaren ezaugarriak, gabezia orokorrak, erregistroen trataera teorikoa eta praktikoa, eta erregistroak lantzeko marko proposamena. Ildo nagusi horietan sakondu nahi duenak jo beza liburu horretara eta bertan aipatzen den bibliografiara.

esparru guztietan hizkuntza egokiro erabiltzen jakin dezan. Izan ere, euskara egokia eta une egokian erabiltzeko gai ez den hiztunak ez du komunikaziorik lortuko, ez du hizkuntza erabiliz gozatuko eta, azken batean, euskara bazterrean utzita beste hizkuntza batez baliatuko da. Beraz, ikasleek ikasi behar dute egoerari dagokion erregistro egokian hitz egiten eta idazten. Hain zuzen ere, hizkuntza menderatzea ez da erregistro bakarra trebetasunez erabiltzea, baizik eta komunikazio-egoeraren ezaugarrien arabera erregistro desberdinetan egoki aritzea.

Euskararen erregistroez jardutean, hainbat faktoreren eraginez erabiltzen den hizkeraz ari gara; besteak beste, solaskideen arteko harremanen, haien asmoen, gaien edo formaltasun-mailaren eraginez erabiltzen den hizkeraz (i.e. euskara batua, euskalkiaren aldaera formala, herriko hizkera, euskañola, euskara batuaren aldaera ez-formala …). Hiztun bakoitzak ohiko erregistro batzuk izaten ditu eskueran, eta komunikazio-ekintzaren testuinguruaren arabera erregistro bat ala beste erabiltzen du. Dena den, erregistroa ez da ulertu behar gauza finko eta egonkor gisa, bi muturren artean gauzatutako continuum bat bezala baizik, irudian ikus daitekeenez.

*10. irudia. Hizkuntz erregistroen continuuma.*

Familiarra — Ez-familiarra — Ez-familiarra

Etxekoa / Lagunartekoa — Neutroa — Jasoa

I-----------------------------------------I--------------------------------------I

Ez-formala ←——— Formala ———→ Formala

Hiztunak egoeraren arabera nola erabiltzen duen hizkuntza eta zein eredu.

## 4.4.2.1. ERREGISTROEN TRATAERA

Nolako euskara behar da, esku-hartze eremu desberdinetan sortutako komunikazio-testuinguru anitzei erantzuteko? Ikastolaren kezka nagusietako bat izan da betidanik euskararen kalitatea zaintzea eta eredu onak irakastea. Azken batean, hizkuntza erabiltzea eta erabileraren egokitasuna ezinbesteko oinarriak dira hiztunen komunikazio-gaitasuna ahalik eta ondoen garatzeko. Horrexegatik da hain garrantzitsua hizketa-molde edo hizkuntz erregistro bat baino gehiago lantzea eta sustatzea, ikasleak bere esparru guztietan hizkuntza egokiro erabiltzen jakin dezan. Izan ere, euskara egokia eta une egokian erabiltzeko gai ez den hiztunak ez du komunikaziorik lortuko, ez du hizkuntza erabiliz gozatuko eta, azken batean, euskara bazterrean utzita beste hizkuntza batez baliatuko da.

Beraz, ikasleek ikasi behar dute argi, jariakortasunez, modu eraginkorrean, eta egoerari
dagokion erregistro egokian hitz egiten. Hain zuzen ere, hizkuntza menderatzea ez da erregistro jaso bakarra trebetasunez erabiltzea, baizik eta komunikazio-egoeraren ezaugarrien arabera erregistro desberdinetan egoki aritzea. Era berean, hizkuntzaren didaktikaren alorrean eredu ezberdinak lantzea proposatzen da, hizkuntzaren erabilera ugariei tratamendu bereziak ezartzeko; besteak beste, erregistrokako banaketa proposatzen da.

Euskararen erregistroez jardutean, hainbat faktoreren eraginez erabiltzen den hizkeraz ari gara; besteak beste, solaskideen arteko harremanen, haien asmoen, gaien edo formaltasun mailaren eraginez erabiltzen den hizkeraz. Hiztun bakoitzak ohiko erregistro batzuk izaten ditu eskueran, eta komunikazio-ekintzaren testuinguruaren arabera erregistro bat ala beste erabiltzen du. Dena den, erregistroa ez da ulertu behar gauza finko eta egonkor gisa, bi muturren artean gauzatutako continuum bat bezala baizik.

Alabaina, eskola-giroan irakasleak, hezitzaileak eta gainerako profesionalak dira hizkuntz erregistro egokiaren sustatzaile, eredu-emaile eta motibazio eragile, gela barruan zein gelaz kanpo. Ildo horretatik, eredu-emaile suertatzen diren horiek izan beharko dute lehenengoak
erregistroak bereizten, eta bide-erakusle ikasleekin askotariko egoeretan erregistro formal eta ez-formal horien erabilera eginez.

Egun, euskara normalizazio-bidean dagoela kontuan hartuz, normalizazio soziologiko eta linguistiko bikoitzean (bai erabileran, bai corpusean) hain zuzen, eskolarako ondoen heldu den eredua estandarra eta jasoa da. Auzia da erregistro formalekoak ez diren egoera eta diskurtsoetan nolako euskara erabili eta irakatsi behar den, alderdi hori baita gaur egun aintzat hartzen ez dena.

Hartara, hezkuntza-komunitateak bere ezaugarri guztiak kontuan harturik –inguruak zenbateko euskalduntasuna erakusten duen, nolako ikasleak etortzen diren bertako ikasgeletara eta abar— zein hizkuntz eredu landuko dituen erabaki behar du; horretarako, gogoan izan behar du egoera informaleko hizkera euskalkian edo azpieuskalkian oinarritzen dela eta hizkera landua, berriz, euskara batuan edo euskalkiaren erabilera landuan.

Ikastolako lana antolatzeko orduan, oro har, inguruaren ezaugarrietatik abiatuko gara; hizkuntzari dagokionez, ikastola non dagoen eta bertako ezaugarri soziolinguistikoak hartuko ditu aintzat, inguruan erabiltzen den hizkuntz mota ahantzi gabe eta gero, pausoka-pausoka, urrutiko ezaugarrietara igaro. Horrez gain, ikasleak lehenagotik zer dakien kontuan hartu behar da nahitaez, eta haren hizkera errespetatu behar da.

# 5- HIZKUNTZA PLANGINTZA

## 5.1- HIZKUNTZA BAKOITZAREN LEKUA ETA FUNTZIOA IKASTOLAKO EREMUETAN

Hizkuntza bakoitzak ikastola barruan izango duen erabilera-eremua eta funtzioa finkatze aldera, honako hau da gure ikastolak hartu duen erabakia:

| EREMUAK | | HIZKUNTZAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | EUSKARA | GAZTELANIA | HIRUGARREN HIZKUNTZA | LAUGARREN HIZKUNTZA |
| PEDAGOGIKOA | GELA BARRUKOA | x | x | x | x |
| | GELAZ KANPOKOA | x | | X* | |
| INSTITUZIONALA | ERAKETA ETA BARNE KOMUNIKAZIOA | x | X* | | |
| | KANPO-HARREMANAK | x | X* | | |

- Euskarak ikastolako esparru guztiak hartzen ditu.

- Gaztelaniak, ingelesak eta frantsesak gela barruko esparrua hartzen dute.

- Gela barruko interakzioa dagokion hizkuntzan izango da. Irakasleen eta ikasleen arteko harremanak euskaraz izango dira beti, Gaztelaniako arloan, , Ingeleseko arloan eta Frantseseko arloan izan ezik. Hauetan irakasten den hizkuntza hori izango da harreman hizkuntza irakasle eta ikasleen artean. Era berean jokatuko da gelaz kanpo ikasgaiari dagozkion zalantzei, azalpenei, galderei... erantzuterakoan (ikasleak irakasle gelara etortzen direnean, zeharbideetan...).

x*- Gaztelania, ingelesa eta frantsesa gelaz kanpo erabiliko dira elkartrukean eta ekintza berezietako emanaldietan soilik.

- Euskara da ikastolako organo guztien hizkuntza, bai ahoz bai idatziz.

- Ikastolako barne komunikazioa euskaraz izango da.

x*- Barne komunikazioa gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean izango da euskaraz egiteko aukerarik ez dagoenean (adibidez, familia erdaldunekin).

- Kanpo harremanak euskaraz izango dira.

x*- Kanpo harremanak gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean izango dira euskaraz egiteko aukerarik ez dagoenean (adibidez, elkartrukeak egiten direnean).

Gela barruko eremuari dagokionez, ondorengo taulak ikastolak hizkuntza bakoitzari eskaintzen dion ordutegia eta hizkuntza bakoitzaren irakaskuntzarako hasierako adina azaltzen du.

| MAILA | ADINA | EUSKARA | GAZTELERA | INGELESA | FRANTSESA |
|---|---|---|---|---|---|
| HH 3 | 3-4 | X Globalizatua | | X* | |
| 4 | 4-5 | X " | | X* | |
| 5 | 5-6 | X " | | X* | |
| LH 1 | 6-7 | X Globalizatua | X (2,5o) | X (2,5o) | |
| 2 | 7-8 | X " | X (2,5o) | X (2,5o) | |
| 3 | 8-9 | X " | X (4o) | X (3o) | |
| 4 | 9-10 | X " | X (4o) | X (3o) | |
| 5 | 10-11 | X " | X (4o) | X (3o) | |
| 6 | 11-12 | X " | X (4o) | X (3o) | |
| DBH 1 | 12-13 | X (3o) | X (4o)3-gazt/ 1-gizab. | X (4o) | X (2o) |
| 2 | 13-14 | X (3o) | X (5o)4-gazt./ 1-gizab. | X (3o) | X (2o) |
| 3 | 14-15 | X (4o) | X (3o) | X (6o)3-ing./ 3-social | X (2o) |
| 4 | 15-16 | X (3o) | X (4o) | X (6o)3-ing/ 3-social | X (2o) |
| HIZKUNTZA BAKOITZAK DUEN DENBORA: % | | Euskara(z):%80 | %8 | %9,5 | %2 |

Ikastolako ikasgai guztiak euskaraz irakatsiko dira, gainontzeko hizkuntzen irakaskuntza eta DBH 3. eta 4. mailetan Gizarte arloa (ingelesez) eta DBH 1. eta 2.ean Gizabidea arloa (gaztelaniaz) izan ezik. Hauek dagokien hizkuntzan irakatsiko dira. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan euskarari zehar lerro trataera ematen zaio, eta eremu guztiak besarkatzen ditu.

Gaztelania arloa LHn 1. mailan hasten gara lantzen horretarako berariaz prestatu dugun ikas-materialarekin. Material hau Ingeleseko materialaren ereduari jarraituz sortu dugu. Zailtasun handiak ematen dizkien ikasgaia denez, horregatik pentsatu genuen LH 1en hastea lantzen.

X*- Goizero irakasle bat egoten da txoko batean 2-3 orduz ipuinak, jolasak, etab. ingelesez egiten edo kontatzen.

Gelaz kanpoko eremuan hizkuntzen banaketa:

| GELAZ KANPOKOA | HIZKUNTZAK | | | |
|---|---|---|---|---|
| | EUSKARA | GAZTELANIA | HIRUGARREN HIZKUNTZA | LAUGARREN HIZKUNTZA |
| JOLASALDIAK | X | | | |
| JANTOKIA | X | | | |
| GARRAIOA | X | | | |
| SARRERA-IRTEERAK | X | | | |
| ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK Ikastola eragile | X | x* | x* | x* |
| ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK Ikastola ez eragile | X | x* | x* | x* |
| IRTEERAK, EGONALDIAK, ETA KANPALDIAK | X | x* | x* | x* |
| JAI-OSPAKIZUNAK | X | | | |

- Gelaz kanpoko eremuan hizkuntza nagusia euskara da

- Eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz dira.

x*-Badira atzerriko hizkuntzetako saioetan prestaturiko emanaldiak, antzerkia esaterako, eta hauek dagokion hizkuntzan burutuko dira.

- Irteeretan eta egonaldietan harreman hizkuntza euskara da. Jarduna euskaraz eskaintzen duten irteerak lehenetsiko dira eta irteera horietan parte diren pertsonak (hizlariak, autobus gidaria…) euskal hiztunak izatea eskatuko da.

x*- Gainontzeko hizkuntzak lantzeko egiten diren irteeretan bakarrik erabiliko dira ikastolako beste hizkuntzak.

- Irakasleen, begiraleen, ikastolako langileen eta ikasleen arteko harreman hizkuntza euskara da.

Eremu instituzionalean hizkuntza bakoitzak duen lekua eta funtzioa :

| EREMU INSTITUZIONALA | | HIZKUNTZAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | EUSKARA | GAZTELANIA | HIRUGARREN HIZKUNTZA | LAUGARREN HIZKUNTZA |
| ERAKETA ETA BARNE KOMUNIKAZIOA | GOBERNU-ADMINISTRAZIO ETA FUNTZIONAMENDU ORGANOEN HIZKUNTZA | X | | | |
| | HIZKUNTZEN TRATAERARI BURUZKO ERABAKIAK BILTZEN DITUZTEN DOKUMENTUAK | X | | | |
| | HEZITZAILE EZ DIREN LANGILEEN HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA | X | | | |
| | EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO DOKUMENTAZIOA | X | X | | |
| | IKT EUSKARRIEN HIZKUNTZA TRATAERA | X | | | |
| | IKASTOLAKO ESPAZIOEN HIZKUNTZA TRATAERA | X | | | |
| FAMILIA | FAMILIA BARRUKO HIZKUNTZA | X | X | | |
| | IKASTOLAREN ETA GURASOEN ARTEKO HARREMANAK | X | X | | |
| | GURASOEN HIZKUNTZA | X | | | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | PRESTAKUNTZA | | | | |
| KANPO HARREMANAK | BESTE IKASTETXEEKIKO HARREMANAK | X | | | |
| | GIZARTE-ELKARTEEKIKO HARREMANAK | X | | | |
| | UDAL ETA HERRI ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK | X | | | |
| | HORNITZAILEEKIKO HARREMANAK | X | X | | |

ERAKETA ETA BARNE KOMUNIKAZIOA

Gobernu,administrazio eta funtzionamendu organoen hizkuntza.

- Ikastolako gobernu, administrazio eta funtzionamendu organo guztien harreman hizkuntza euskara da, ahoz eta idatziz.

GURASO BILERAK

-Guraso bileretan hizkuntza euskara da, ahoz eta idatziz. Gurasoen ordezkariak izendatzeko ezinbesteko baldintza da euskaraz edozein gairen inguruan azalpenak ulertzeko oinarrizko gaitasuna izatea

BATZAR OROKORRA

- Ikastolako Batzar Orokorra euskaraz gauzatuko da. Elkarrizketa euskaraz gauzatuko da. Norbaitek gaztelaniaz galdetzen badu, gaztelaniaz erantzuten zaio.

LANGILEEN HIZKUNTZA PROFILA

-Azpeitiko Ikastola Ikasberrik irakasleei nahiz bestelako profesionalei ondorengo hizkuntz profila eskatuko die:

• ***Zuzendaria eta irakasleak:*** Europako Erreferentzia Markoak proposatzen duen C1 maila euskaraz (EGA edo baliokidea) . Atzerriko hizkuntza irakasleek, berriz, C1 maila (Advanced, Dalf-C1...) kreditatu beharko dute. Titulazio horiez duten irakasleak, hura lortzera ahalbideratuko dira.

• ***Administrazioko langileak:*** C1 maila, euskaraz.

• ***Atezaina:*** Euskaraz hitz egiteko jariotasuna izango du. Ez da hizkuntz lorpen mailarik eskatuko.

• ***Jangelako hezitzaileak:*** Euskaraz hitz egiteko jariotasuna izango dute. Ez da hizkuntz lorpen-mailarik eskatuko.

• ***Autobusetako begiraleak:*** Euskaraz hitz egiteko jariotasuna izango dute. Ez da hizkuntz lorpen-mailarik eskatuko.

• ***Autobusetako gidariak:*** Euskara ezagutuko dute. Hizkuntz irizpidea, ez da irizpide nagusia izango autobus zerbitzu bat kontratatzeko garaian. Eskaintzen duen zerbitzu kalitatea (zerbitzuen puntualitatea eta abar) lehenetsiko da.

• ***Garbitasuneko langileak:*** *Euskara dakitenak* eskatuko dira. Baina langile hauek ikasleekin harremanik ez dutenez, eskola-orduz kanpo aritzen direlako, zerbitzuaren kalitatea lehenetsiko da.

• ***Eskolaz kanpoko ekintzetako hezitzaileak:*** Euskaraz hitz egiteko jariotasuna

# 5.2- HIZKUNTZA ERREGISTROEN TRATAERA

## 5.2.1.-HIZKUNTZA ERREGISTROAK; JUSTIFIKAZIOA

Urola erdian kokaturik dagoen ikastola da. Ikasleriaren portzentaje nagusiena Azpeitikoa da. Baina baita biltzen ditu Azkoitiko, Zestoako, Aizarnazabalgo, Errezilgo eta hainbat auzotako(Landeta, Urrestilla, Nuarbe...)ikasleak ere.

Familia-tipologiaz esan dezakegu elebiduna dela ia ehuneko osoan, fenomeno bakarrenetakoa Euskal Herriko geografian. Ondorioz, ikasleak ere elebidunak dira (HH eta LHn gehiengoa euskal elebakarra). Azpimarratzekoa etorkinen kopurua handitzen ari dela eta hauen egokitzapena euskararekiko, nahiko azkarra eta egokia dela, batez ere HH eta LHra datozenen kasuetan, salbuespenak salbuespen. Bistan dago hau dena gauden eskualde euskaldun peto-petoa delako dela.

Gure ikastolan, bere hasieratik, euskararen erabilpena oso altua izan da (%97,91). Hala ere, beste hizkuntzen erabilpena eremu guztietan finkatzeko ahalegina egin da aurreko urteetan hizkuntza proiektua sortuz eta, horri esker, euskararen presentzia eta erabilpena bermatzeko estrategiak dokumentatuta daude.

Hasiera-hasieratik, abian zegoen Euskaraz Bizi proiektuan murgildu zen. Euskaraz aritzeko motibazio-kanpainaren beharrik ez da izan ikastolan, baina Euskaraz Biziren baitan gauza asko eta asko egin dira. Euskal tradizioko eta kulturako ondarea suspertu, sustatu eta errekuperatu da. Aipatzekoa da adibidez, ikastolak eskaintzen dion Azpeitiko herriari, kalean burutzen baita, Euskal Inauteriaren arima eta ikuskizuna, euskal geografian oinarritutako dantzak irudikatuz. Euskaraz aritzeko motibazioa bakarrik ez da izan, bai, ordea, euskararen maila hobetzeko eta gurasoentzat zein irakasleentzat ikastaro trinkoak antolatzen dira.

Era berean, Hizkuntza Proiektua martxan dugu. Ikas/irakaskuntzan bi helburu nagusi ditugu. Bata, nola sustatu eta hobetu gaztelaniaren erabilera, nahiz eta paradoxa bat dela iruditu, eta, bestea, erregistroen eta inguruko euskalkien aplikazioa nola gauzatu hizkuntza sisteman.

Euskararen kalitatearen inguruko kezka nabaria da, batik bat erregistro formalak erabiltzeko garaian ahozkotasunari dagokionez. Izan ere, erregistro ez-formala erabiltzeko joera eremu guztietan zabaldu da, desegokia izan arren. Beste aldetik, hitanoaren erabilpenaren inguruko hainbat kezka ere nabarmendu dira. Oso zabalduta egon arren, ez da zuzen erabiltzen zenbait kasutan, nokan, alegia.

Gabezia hau zuzentzeko 2010-11 ikasturtean abian jarri genuen prestakuntza plan bat, klaustro osoari zuzenduta. Ikasturte horretan hizkuntza erregistroen inguruko azterketa teoriko- praktikoa burutu genuen, Ikastolen Elkartearen eskutik, gai honen inguruan marko teoriko garbi bat eskaintzeko hezitzaile guztiei.

Ondoren, 2011-12 ikasturtean gure ikastolan hizkuntza erregistroen presentzia komunikazio egoera guztietan nolakoa izan behar duen definitzeari ekin genion, gure marko orokorra izango dena finkatzeko asmoz. Lan hau Ikastolen Elkartearen gidaritzapean burutu ondoren, 2012-13 ikasturterako ekintza plana ondorioztatu genuen.

## 5.2.2.-EKINTZA PLANAREN DEFINIZIOA

Hizkuntza erregistroen inguruko lana gauzatu ahal izateko hainbat elementu hartu beharko dira kontuan:

**Hizkuntza-erregistroa.**

Ekintza komunikatibo bakoitzeko solaskideen arteko harreman-motaren, komunikazio-asmoaren, egoerak dakarren formaltasun-mailaren eta egoera definitzen duten beste hainbat faktoreren eraginez (testu-generoa, erabilera esparrua) erabiltzen den hizkera.

**Komunikazio-ekintza.**

Testuinguru jakin batean bi pertsona edota gehiagoren artean gertatzen den hitzezko egintza da. Hortaz, ekintza komunikatiboa gauzatzeak hitzez zerbait

egitea eskatzen du. Kontzeptu hori ulertzeko, ezinbestean, ekintza oro gauzatzen den testuinguruak zein osagai dituen zehaztu behar dugu:

· enuntziatzailea (mezua nork eta zein roletatik bidaltzen duen)

· enuntziatarioa (mezua nori eta zein roletan bidali zaion)

· Xedea: enuntziatzaileak zer lortu nahi duen: eragitea, iritziz aldaraztea, zirikatzea, saltzea, informatzea, irakastea…

· Erabilera-esparrua: Administrazioa, komunikabideak, pertsonala, hezkuntza…

· Testu-generoa: iragarkia, gutuna, iritzi-artikulua, bertsoa, kantak, erreportajea, azalpen didaktikoa, hitzaldia…

**Hiztun osoa.**

Dena delako ekintza komunikatibotan egokitasunez, zuzentasunez eta eraginkortasunez komunikatzeko gai izatea.

Aurreko kontzeptu horiek argi izanik, gure plangintza honen helburua gure Ikastolako ikasleak hiztun osoak izatera iritsi behar dute; hots, edozein egoera komunikatiboa dela eta, gure ikasleak egokitasunez, zuzentasunez eta eraginkortasunez komunikatzeko gai izatera iritsi behar dute.

**Baldintzak.**

Helburua lortu ahal izateko hainbat baldintza hartu beharko dira kontuan:

- Proiektuaren arduraduna Hizkuntza Proiektuaren dinamizatzaile orokorra izango da
- Etapaka gauzatuko dira lan ildo nagusiak eta horretarako koordinatzaile pedagogikoa izango dugu laguntzaile.
- Lanaren jarraipena egiteko astero etapaka egiten diren bilerak izango dira gune nagusia
- Lanaren jarraipena eta emaitzak baloratzeko hiru saio burutuko dira ikasturtean zehar (ebaluazio bakoitzean bat).

**Marko orokorra**

**HH-**

Irakasleen eta ikasleen arteko egoera komunikatibo gehienak hizkera familiarraren ereduaren araberakoak izanik, umeek etxetik dakarten hizkeratik gertuko ereduan gauzatuko dira. Beraz, ikastolaren testuinguru soziolinguistikoa aintzat hartuta, egoera komunikatibo gehienak euskalkian gauzatuko dira, etxeko giroan hitz egiten den moduan. Ikastolaren kokagunekoak ez diren irakasleek beraien jatorriko hizkeraren eredu familiarrena erabiliko dute

Egoera komunikatiboen markoa lanketa didaktikoa denean hizkera familiar hori, ikastolaren kokaguneko zein hiztunaren jatorrizko eredua, egokituko da, eta beharrezko denean hizkera zainduaren ezaugarriak hartuko ditu.

**LH-**

**1.zikloa**
Irakasleen eta ikasleen arteko egoera komunikatiboetan, irakasleak ondo bereiziko du formaltasun mailaren arabera zein erregistro erabili behar duen. Oso garrantzitsua da erregistroen arteko aldea nabarmentzea, ikaslea erregistro bereizketaz jabetu dadin.

Egoera komunikatibo ez-formalak etxeko hizkeraren ereduan gauzatuko dira.

Egoera komunikatibo formaletan, berriz, eredu zainduan ariko da irakaslea ikasleari. Ikasleari ez zaio eskatuko eredu formalean jardutea, eredua emango zaion arren.

Komunikazio egoerak eredu zainduan: azalpenak eta aurkezpenak, galdera eta erantzunak talde osoari.

**2.zikloa**

Irakasleen eta ikasleen arteko egoera komunikatiboetan, irakasleak ondo bereiziko du formaltasun mailaren arabera zein erregistro erabili behar duen. Oso garrantzitsua da erregistroen arteko aldea nabarmentzea, ikaslea erregistro bereizketaz jabetu dadin.

Egoera komunikatibo ez-formalak etxeko hizkeraren ereduan gauzatuko dira.

Egoera komunikatibo formaletan, berriz, eredu zainduan ariko da irakaslea ikasleari. Ikasleari azalduko zaio horrelakoetan eredu formalean aritzea dela egokiena, ebaluatuko ez zaion arren.

Komunikazio egoerak eredu zainduan: azalpenak eta aurkezpenak, galdera eta erantzunak talde osoari.

**3.zikloa**

Irakasleen eta ikasleen arteko egoera komunikatiboetan, irakasleak ondo bereiziko du formaltasun mailaren arabera zein erregistro erabili behar duen. Oso garrantzitsua da erregistroen arteko aldea nabarmentzea, ikaslea erregistro bereizketaz jabetu dadin.

Egoera komunikatibo ez-formalak etxeko hizkeraren ereduan gauzatuko dira.

Egoera komunikatibo formaletan, berriz, eredu zainduan ariko zaio irakaslea ikasleari. Ikasleari eskatuko zaio horrelakoetan eredu formalean aritzea, baita ebaluatu ere ziklo amaierako irizpideen arabera.

Komunikazio egoerak eredu zainduan: azalpenak eta aurkezpenak, galdera eta erantzunak talde osoari.

**DBH**

**1.zikloa**

Irakasleen eta ikasleen arteko egoera komunikatiboetan, irakasleak ondo bereiziko du formaltasun mailaren arabera zein erregistro erabili behar duen. Oso garrantzitsua da erregistroen arteko aldea nabarmentzea, ikaslea erregistro bereizketaz jabetu dadin eta dagokion erregistroan egoki moldatu dadin.

Egoera komunikatibo ez-formalak etxeko hizkeraren ereduan gauzatuko dira.

Egoera komunikatibo formaletan, eredu zainduan ariko da irakaslea ikasleari. Ikasleari eskatuko zaio horrelakoetan eredu formalean aritzea, baita ebaluatu ere ziklo amaierako irizpideen arabera.

Komunikazio egoerak eredu zainduan: azalpenak eta aurkezpenak, galdera eta erantzunak talde osoari.

DBH etapa amaierako euskararen gaitasun maila B2ren parekoa da, jakintza-arlo guztietan. Beraz, hizkuntzaren lanketa arlo guztietako irakasle guztien egitekoa dela garbi izanik, ondorengo hizkuntza helburuak ezarriko zaizkie ikasgaiei:

1. Euskara arloan, erregistro zaindua (bai batuan, bai euskalkian) lantzen jarraitu behar dute. Zentzu horretan, ikasleek ahozko aurkezpenak bi hizketa motetan egin beharko dituzte eta bien erabilera maila berean bermatu beharko da.
2. Gainerako arloetan, ikasleen azalpenak eta aurkezpenak euskara jasoan egingo dira. Irakaslearen jarduna euskara jasoari dagokiona izango da.

**2. zikloa**

Irakasleen eta ikasleen arteko egoera komunikatiboetan, irakasleak ondo bereiziko du formaltasun mailaren arabera zein erregistro erabili behar duen. Oso garrantzitsua da erregistroen arteko aldea nabarmentzea, ikaslea erregistro bereizketaz jabetu dadin eta dagokion erregistroan egoki moldatu dadin.

Hartara, egoera komunikatibo ez-formaletan etxeko hizkeraren ereduan gauzatuko dira.

Egoera komunikatibo formaletan, eredu zainduan ariko zaio irakaslea ikasleari. Ikasleari eskatuko zaio horrelakoetan eredu formalean aritzea, baita ebaluatu ere ziklo amaierako irizpideen arabera.

DBH etapa amaierako euskararen gaitasun maila B2ren parekoa da, jakintza-arlo guztietan. Beraz, hizkuntzaren lanketa arlo guztietako irakasle guztien egitekoa dela garbi izanik, ondorengo hizkuntza-helburuak ezarriko zaizkie ikasgaiei:

1. Euskara arloan, ahozko aurkezpen guztiak batuan egin behar dituzte. Gainontzeko ekintza komunikatibo formalak (gaiari egindako ekarpenak, zehaztapenak, argudioak…) erregistro zainduan egingo dira, izan euskalkia izan euskara batua
2. Gainerako arloetan, ikasleen azalpenak eta aurkezpenak euskara jasoan egingo dira.

**DBHO**

Irakasleen eta ikasleen arteko egoera komunikatiboetan, irakasleak ondo bereiziko du formaltasun mailaren arabera zein erregistro erabili behar duen. Oso garrantzitsua da erregistroen arteko aldea nabarmentzea, ikaslea erregistro bereizketaz jabetu dadin eta dagokion erregistroan egoki moldatu dadin.

Hartara, egoera komunikatibo ez-formaletan etxeko hizkeraren ereduan gauzatuko dira.

Egoera komunikatibo formaletan, eredu zainduan ariko zaio irakaslea ikasleari . Ikasleari beren-beregi eskatuko zaio horrelakoetan eredu formalean aritzea, baita ebaluatu ere ziklo amaierako irizpideen arabera.

DBHO etapa amaierako euskararen gaitasun maila C1en parekoa da, jakintza-arlo guztietan. Beraz, hizkuntzaren lanketa arlo guztietako irakasle guztien egitekoa dela garbi izanik, ondorengo hizkuntza helburuak ezarriko zaizkie ikasgaiei:

1. Euskara arloan, euskara batua izango da komunikazio tresna egoera komunikatibo guztietan. Irakaslearen jarduna euskara batuan gauzatuko da.
2. Gainerako arloetan ere, ikasleen eta irakasleen azalpenak eta aurkezpenak euskara batuan egingo dira.

## 5.3- ESKOLATZE BERANTIARRAREN ERRONKA

Hizkuntz plangintzak garatzeko garaian, kontuan hartu beharreko beste aldagai bat izango dira eskolatze berantiarrarekiko irizpideak.

Gizartearen egungo migrazio-mugimenduen ondorioz, gero eta gehiago dira eskolatze-prozesua jatorrizko herrialdean hasi eta, gehienetan, ikasturtea hasita dagoela eskolatze hori beste lurralde batean jarraitzen duten ikasleak. Eskolatze goiztiarraren kasuan, etorri berri diren ikasleen integrazioa kasu gehienetan era naturalean gertatzen da, baina eskolatze berantiarra konplexuagoa izan ohi da. Izan ere, hizkuntzari eta eskolatzeari dagokienez, ikasle horien artean askotariko egoerak topatuko ditugu: batzuk, aldez aurretik eskolan aritutakoak eta jatorrizko hizkuntza gehiago garatu dutenak izango dira; beste batzuk, eskolan inoiz aritu gabekoak; batzuek kultur input aberatsagoa

izango dute, eta besteek eskasagoa; batzuek euren ama hizkuntzaz gain atzerriko hizkuntza bat ekarriko dute, baina beste batzuek ez …

Egoera hori kudeatzeko, hau da, aniztasuna kudeatzeko, Hizkuntza Proiektuak hainbat erabaki eta irizpide markatzen lagunduko du; hortaz, erreferentziazko dokumentua izango da.

Ingurune soziolinguistikoari eta ikaslearen jatorriari erreparatuta erabaki beharko dugu zein aitortza egingo diogun gaztelaniari, zein izango den hizkuntza horretan finkatuko ditugun oinarrizkoak, eta zein baliabide jarri beharko dugun hori lortzeko.

Atzerriko hizkuntzari dagokionez, aztertu beharko dugu ikasleak ingelesaren eta frantsesaren (edo gaztelaniaren) gaineko ezagutzarik duen; izan ere, helduleku interesgarria litzateke hori ikaslearen integraziorako. Eskolako hirugarren hizkuntza hori ezagutuko balu, ezagutza horiek indartu eta errekonozitu egin beharko litzaizkioke, bere eskolaldirako motibazio bat gehiago izan dadin. Egoera horretan, gainera, testuinguru motibagarriak proposatu beharko litzaizkioke ezagutzen duenetik euskarara eta gaztelaniara ekarpenak eta transferentzia automatikoak egiteko. Eta ezagutuko ez balu, berdinen arteko egoera errealean aurkituko litzateke eskola-testuinguruan, laugarren hizkuntzan, bederen.

Curriculum-proiektua adostu eta gero, irakasle taldeak balioetsi beharko du erdietsi beharreko konpetentziei begira, zer baliabide izango duen, ikasleak laguntzarik beharko duen, eta zer motakoa beharko lukeen (gelatik kanpo noiz eta zertarako). Alegia, beharren arabera moldatu beharko da gelaren antolaketa eta baliabideen antolaketa; funtzionaltasuna bilatu beharko da.

Identifikatu beharko dugu gelako ikasleek zerekiko duten abiapuntu berdintsua, eta adostu beharko ditugu ikasle guztiei komunak zaizkien esparruak (balioen lanketa, kultur ikuspegi desberdinen ekarpenak eta abar) eta baita horiek garatzeko uneak eta prozedurak ere.

Era berean jokatu beharko da ikasleak jatorriz dakarren hizkuntzarekin. Aurreikusi eta landu beharko da noiz eta nola eman aukera gela barruan eta ikastolan jatorrizko hizkuntza horri. Familiarekin ere landu beharko da ikuspegi hori, tokian tokiko hizkuntza berriak ez ditzaten ikusi jatorrizko hizkuntzarekiko mehatxutzat, aukeratzat baizik.

Gelaz kanpoko jardunari dagokionez, gela barrurako hartutako erabakiekin koherentzian jokatu beharko dugu. Eremu horrek bi helburu izango ditu ikasle

etorri berriarekiko: batetik, eta edozein dela ere ingurune soziolinguistikoa, euskara egoera informaletarako ere baliagarri dela aitortzea, eta ikasleari gelaz kanpoko jardunerako behar duen hizkuntz errepertorioa eskaintzea; bestetik, etorri berriaren integrazioa eta taldearen kohesioa.

# 6-PRESTAKUNTZARAKO IRIZPIDEAK

Azpeitiko Ikastola Ikasberrik prestakuntza-plana ikasturtez ikasturte diseinatzen du ikastolako Estrategi Planari eta abian dituen proiektuei egoki erantzuteko asmoz. Lau atal nagusi hauetan planifikatzen ditu prestakuntza ekintza guztiak:

- Curriculum Proiektuarekin lotua
- Hizkuntz beharrekin lotua
- Teknologi berriekin lotua
- Kudeaketarekin lotua

## 6-1. PRESTAKUNTZAREN ESPARRUAK

Azpeitiko Ikastola Ikasberriren prestakuntza-planaren barruan hizkuntza beharrei erantzuteko ardura duen atala Hizkuntz Proiektuaren beharrei egokitutako tresna da, eta bere baitan hartzen ditu bai hezkuntza-komunitatearen partaideak, baita ikastolaren Hizkuntza Proiektua aurrera eramateko beharrezko diren osagai guztiak ere. Horretarako, ondorengo lau esparru nagusi hauetan eragiten du:

- Hizkuntz prestakuntza
- Metodologia prestakuntza
- Hizkuntz jarreren inguruko prestakuntza
- Hizkuntz Proiektua dinamizatzeko prestakuntza

1- HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA

Batetik, Azpeitiko Ikastola Ikasberrik , profesional guztiei eskaintzen die hizkuntz prestakuntza, euren gaitasun komunikatibo orokorrak eta lan-arloari loturiko gaitasun komunikatibo espezifikoak lantzeko asmoz.

Eta, bestetik, ikaslearen inguruko harreman-sareetatik familia izanik hizkuntzaren transmisioan eta eskurapenean ondorio nabariak ezartzen dituen eragile nagusia, ikastolak aukerak eskaintzen dizkie gurasoei euskara ikasteko, hobetzeko, sendotzeko eta erabiltzeko. Ildo horretatik, ikastolan umeekin Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloan lantzen diren materialekin eta programazioekin lotura zuzena duten euskara ikastaroak ere eskaintzen ditu.

2- METODOLOGIA PRESTAKUNTZA

Konpetentzia komunikatiboa lantze aldera, benetako premia dira ahozkotasuna eta elkarreragina bultzatzea. Orobat jorratu nahi du  Azpeitiko Ikastola Ikasberrik, esparru bakoitzaren testuinguruaren berezitasunen arabera sortzen diren komunikazio-egoera esanguratsuak nola balia daitezkeen, gela barruan eta gelaz kanpo, ikasleek hizkuntzaren erabilera funtzionala egin dezaten. Ildo horretatik, berebiziko garrantzia hartzen dute metodologiaren inguruko prestakuntza saioek. Izan ere, horien bitartez lortu nahi da irakasleek eta hezitzaileek –hizkuntz arlokoek ez ezik, gainerako arlo eta esparruetakoek ere—, besteak beste, ikas dezatela ekintza komunikatiboen testuinguruaren arabera ahozkotasuna nola landu ikasleekin elkarreraginean, sortzen diren komunikazio esanguratsuak egoki kudeatzeko estrategiak, ikasketa kooperatiboa bultzatzea, arloetako operazio kognitiboak gauzatzen dituzten testu generoen lanketa arrakastatsua, arloko konstanteak eta trebeziak lantzeko modua...
Hizkuntza, azken batean, edozein ikaskuntza-irakaskuntzaren oinarrizko tresna izanik,  Azpeitiko Ikastola Ikasberrik metodologia horien inguruko prestakuntza bultzatzen du irakasle eta hezitzaileen artean, bakoitzak bere esparruan hizkuntz behar horien lanketa ikasleekin egiteko.

3- HIZKUNTZA JARREREN INGURUKO PRESTAKUNTZA

Azpeitiko Ikastola Ikasberrik, ikasleak euskalduntasunean eta euskaran ardaztutako eleaniztasunean hezi nahi dituenez, euskarekiko jarreren inguruko alderdiak lantzeaz batera, euskara eta euskal kulturaren eta bestelako hizkuntzen eta kulturen arteko bizikidetza sustatu behar eta nahi du. Lan horretan, ikastolak gogoan du hizkuntzekiko jarrerak hezkuntza komunitateko partaide guztiekin eta bereziki gurasoekin lantzea garrantzi handiko kontua dela.

4- HIZKUNTZA PROIEKTUA DINAMIZATZEKO PRESTAKUNTZA

Azpeitiko Ikastola Ikasberrik, Hizkuntz Proiektua Taldeko dinamizatzaileek ikastola-giro osoa aintzat hartu eta landu behar dituen ekintza guztiak zuzenean elikatzeko, dinamizatzeko eta bideratzeko behar duten prestakuntza jasoko dutela ziurtatzen du.

# 7- HIZKUNTZ PROIEKTUAREN KUDEAKETARAKO IBILBIDEA

Ikastolaren Hizkuntz Proiektua bizirik eta etengabeko eraldaketan dagoen egitasmoa da eta, horretarako, luzera begira diseinatutako plangintza du; jarraian lau urteko iraupen ziklikoa izango duen ibilbidea proposatzen dugu.

Ibilbide horren urrats nagusiak bi alditan bereiziko dira:

- **Lehenengo ikasturtean** egitasmoa abiatzeko urrats nagusiak egingo dira:
    - Ikastolako hezkuntza-eragile guztiekin Ikastolen Hizkuntz Proiektuaren erreferentzia-markoaren gaineko hausnarketa egin.
    - Hizkuntz Proiektuaren beharra partekatu eta aurrerantzean jorratu beharreko bidea elkarrekin adostu eta onartu.
    - Ikastolako komunikazio-testuinguru osoa aztertu eta hizkuntzen erabilera eta trataeraren diagnosia egin.
    - Ikastolaren Hizkuntz Proiektua dokumentuaren lehen bertsioa idatzi.
    - Diagnosiko datuen interpretazioa egin eta identifikatutako beharrei erantzuteko lau urterako plan estrategikoa idatzi.
    - Plan estrategikoan jasotako helburuei erantzuteko urtebeterako plan zehatz bat -urteko plana- idatzi.
- **Bigarren ikasturtetik aurrera** egin beharrekoak errepikatu egingo dira hiru ikasturtez:
    - Urteroko plana aurrera eraman eta egindako lanen ondorioz, plan hori ebaluatu; hurrengo ikasturteko plana idatzi eta hasierako Hizkuntz Proiektua dokumentua osatu edo eguneratu ikasturte bukaeran.

- Laugarren ikasturtearen bukaeran plan estrategikoa ebaluatuko da eta Hizkuntz Proiektua dokumentua berritu/osatu. Aurreikusitako helburuen lorpen mailaren araberako bigarren plan estrategiko bat idatziko da, urratsen zikloa berriro abian jarriz. Azken honetan txertatu beharko dira bete ez direnak eta berriak.

Hizkuntza Proiektua kudeatzeko ibilbidea




Hik

# 8- HIZKUNTZ PROIEKTUA KUDEATZEKO EGITURA ETA ZEREGINAK

Hizkuntz Proiektuaren sorkuntzak, garapenak eta balioespenak, Ikasberri Azpeitiko ikastolan egun dauden gobernu- nahiz funtzionamendu-organo guztien inplikazioaz eta elkarlan sendoaz gain, azken horren barruan txertatuko den berezko antolaketa egonkor baten beharra eskatzen du: Hizkuntza Proiektua Taldea, Hizkuntz Departamentu Bateratua eta Euskaraz Bizi taldea. Azken biak Hizkuntz Proiektua Taldearen barruko azpi-taldeak izango lirateke. Ondorengo irudian Hizkuntz Proiektuaren kudeaketak beharrezkoa duen egitura egonkorra berdez ikus daiteke, eta zuriz, berriz, hizkuntzaren zeharkakotasuna bermatzearren Hizkuntza Proiektuaren lankidetza beharrezkoa izango duten eremuak.




## 8.1. **Ikastolaren gobernu-organoei dagozkien zereginak**.

Gobernu-organoek (Ikastolaren Junta, Ikastolaren Batzar Nagusia) ikastolako ildo nagusiak finkatzearen eta haiek gauzatzea ziurtatzearen ardura dute.

- Hizkuntz Proiektuaren beharra aztertu eta haren sorkuntza onetsi.

- Hizkuntz Proiektua garatu ahal izateko diru-baliabideak aurrekontuetan onetsi.
- Hizkuntz Proiektuaren plan estrategikoa, urteko plangintzak eta memoriak balioetsi eta onetsi.

## 8.2.**Zuzendaritzari dagozkion zereginak**.

Zuzendaritzak gobernu-organoetan hartutako erabakiak bideratzearen eta gauzatzearen ardura du.

- Hizkuntz Proiektua lantzearen eta gauzatzearen beharra aztertu eta hezkuntza komunitatearekin adostu.
- Hizkuntz Proiektua Taldearen eraketa eta haren ezaugarri nagusiak zehaztu: kideak aukeratu, arduraduna izendatu, helburuak finkatu …
- Talde honek, orain arteko Euskaraz Bizi taldearen zereginak bere gain hartuko ditu eta azken honen ibilbidea bukatutzat emango da (Aipatutako egoera datozen urteetan birplanteatuko da)
- Ikastolarako proposatzen den Hizkuntz Proiektua aztertu eta egokia izanez gero oniritzia eman.
- Ikastolako ohiko barne-funtzionamendua bideratzen duten erreferentea nagusietan (curriculum proiektua, barne-araudia, urteko plana, aurrekontuak, ..) Hizkuntz Proiektuarekiko isla ziurtatu.
- Hizkuntz Proiektua Taldeak proposatutako hizkuntzaren prestakuntza-plana aztertu eta ikastolako prestakuntza-planean txertatu.
- Hizkuntz Proiektuaren plan estrategikoak eta urteko plangintzak aztertu, onespena landu eta ikastolako gestio-planean eta urteko plangintzan txertatu.
- Urteko plangintzaren jarraipena egin eta urteko memorien balioespenean parte hartu. Plan estrategikoaren jarraipena egin eta bere memoriaren balioespenean parte hartu.

8.3 **Hizkuntz proiektua taldearen zereginak**. Hizkuntz proiektua taldearen zereginak hauexek izango lirateke.

- Ikastolaren gela barruko eta gelaz kanpoko eremuetan lantzen diren hizkuntzen irakaskuntzaren eta erabileraren arteko koherentzia eta kohesioa bermatzea; bereziki, komunikatzen ikasi konpetentziaren garapena ziurtatzeko eta hizkuntzaren zeharkakotasuna bermatzeko.
- Euskararen normalizazioan eta eleaniztasunean eragile izatea.
- Ikastolako hizkuntz egoeraren diagnosia bideratzea.
- Ikastolak hizkuntzekiko dituen beharrei eta lehentasunei erantzuteko plan estrategikoa idaztea, zuzendaritzari proposatzea eta zuzendaritzarekin batera plan estrategikoaren balioespena egitea.
- Ikastolaren Hizkuntz Proiektua idaztea eta eguneratzea, betiere Ikastolaren Hezkuntza Proiektuarekiko eta Curriculum Proiektuarekiko koherentzia zainduz.

- Hezkuntza-komunitate osoari antzemandako hizkuntz beharrei erantzute aldera, hizkuntzaren prestakuntza-plana diseinatu eta zuzendaritzari proposatu. Hizkuntz prestakuntza horrek bere baitan bilduko ditu hizkuntzen metodologia, didaktika eta hobekuntza ekintzak, bai eta hizkuntzekiko jarreren ingurukoak ere.
- Hizkuntz Proiektuaren urteko plangintza proposatzeaz eta baloratzeaz gain, urtean bitan plangintza horren jarraipena egitea.
- Hizkuntz Departamentu Bateratuaren proposamenak aztertzea eta horien gaineko erabakiak hartzea edo proposatzea(oraindik ez dago martxan).
- Euskarak auzoan edo herrian duen egoera soziolinguistikoa ezagutzea.
- Gelaz kanpoko hizkuntz erabilera arakatzea (hizkuntz-neurketak), esku-hartze planak proposatzea eta jarraipena egitea.
- Eremu instituzionalean ikastolako hizkuntz politika proposatzea euskarari dagokionez.
- Beharraren arabera, Euskara Elkarteko ikasle ordezkariekin elkartuko dira.
- Beharraren arabera, gurasoen batzordeko ordezkariekin elkartuko dira.
- Hizkuntz Proiektua garatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskatzea.
- Zeregin horiek bete ahal izateko, Hizkuntz Proiektua Taldearen eguneroko jardunean honako puntuak aintzat hartu beharko dira:
- Taldeko kideek lan egiteko ordu-dedikazioa eta koordinazio guneak bermatuta izango dituzte.
- Erabakiak adostasunez hartuko dira eta, zuzendaritzaren onespenarekin, erabaki horiek lotesleak izango dira.

## 8.**4 Hizkuntz departamentu bateratuaren osaketa eta zeregina**.

Hizkuntz Departamentu Bateratuaren osaketari dagokionez, honakoak lirateke departamentu horren kideak:

Gela barruko eremuaren dinamizatzailea (HH,LH tutoreak)
Etapa guztietako hizkuntz irakasleak eta ordezkariak.
Gela barruko eremuaren dinamizatzailearen gidaritzapean, Hizkuntz Departamentu Bateratuaren ardura izango da Hizkuntzen Curriculum Bateratua gauzatzea; beraz, betiere Hizkuntz Proiektua Taldearen koordinaziopean.
Honakoak dira Hizkuntz Departamentu Bateratuaren zereginak:

Hizkuntz Proiektuan hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzarako adostutako ikuspegi metodologikoa garatzea.
Hizkuntzen curriculum bateratua (helburuak, edukiak, ebaluazio-irizpideak …) garatzea eta eragileekin lantzea.

Erabakitakoa kontuan hartuta, askotariko baliabideak (ikasmaterialak ...) hautatzea eta Hizkuntz Proiektua Taldeari proposatzea.
Programazioen arteko koordinazioa eta osagarritasuna ziurtatzea.
Arloko metodologia lantzeko nahiz irakasleen hizkuntz maila hobetzeko prestakuntza beharrak definitzea eta Hizkuntz Proiektua Taldeari aurkeztea.
Beste arloetako irakasleekin koordinatzea, arlo horien hizkuntz beharrei erantzuteko orientabideak emateko.
Etapako bileretan, egindako lanaren berri ematea.

Zeregin horiek bete ahal izateko eguneroko jardunean aintzat hartu beharko lirateke honako puntu hauek:

Taldeko kideek lan egiteko ordu-dedikazioa eta koordinazio guneak bermatuta izango dituzte.
Egin beharreko lanaren arabera lan taldeak antolatu beharko dira: etapa guztiak batera, etapaka, hizkuntzaka, mailaka, .. .

# 9- HIZKUNTZA PROIEKTUA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Honako hauek izango dira Hizkuntz Proiektua eta bere eragina ebaluatzeko erabiliko ditugun irizpideak:

- Ikastolen Elkarteak egiten digun ebaluazioa:
    - Hizkuntza proiektuaren koherentziari buruz:
        - Diagnosia
        - Plan estrategikoa
        - Urteko plana
        - Ikastolaren hizkuntza proiektua
    - Hizkuntza proiektuaren egitura eta funtzionamenduari buruz:
        - Hizkuntza proiektua taldea
        - Hizkuntza mintegi bateratua
    - Hizkuntza proiektuaren ezagutza eta zabalkundea
    - Proiektuaren emaitzen ebaluazioa
        - Ebaluazio tresnak
        - Proiektuaren lorpenak

- Urteko planen memoriak
- Plan Estrategikoaren memoria
- Hiztun neurketen emaitzak
- Ebaluazio diagnostikoen emaitzak

# 10- ERANSKINAK

## 10.1- IKASTOLAREN DIAGNOSIA

A. HEZKUNTZA PROIEKTUA: datuen analisia 2. or.

B.HIZKUNTZEKIKO ESKU HARTZE EREMU GARATUA

1. EREMU PEDAGOGIKOA

*1.1. Eremu kurrikularra*

1.1.1. Kudeaketa pedagogikoa
1.1.1.1. Curriculum proiektua
1.1.1.1.1. Hizkuntza-arloko curriculum integratua
1.1.1.1.2. Beste arloetako curriculumak 4. or.
1.1.1.1.2.1. Hizkuntzen trataera instrumentala
1.1.1.2. Egitasmo osagarriak
1.1.1.3. Irakasleen prestakuntza-planak

1.1.2. Interakzio didaktikoa 5. or.
1.1.2.1. Harremanak
1.1.2.2. Baliabideak

*1.2. Eremu ez kurrikularra* 6. or.

1.2.1. Guneak eta zerbitzuak
1.2.2. Partaideak

2. EREMU INSTITUZIONALA 7. or.

*2.1. Ikastolako antolaketa (Ulibarri)*
*2.2. Harremanak*

# HIZKUNTZA PROIEKTUA

A. HEZKUNTZA PROIEKTUA: datuen analisia

| ESPARRUA | INDARGUNEAK | AHULEZIAK | BEHARRAK |
|---|---|---|---|
| Inguruneari buruzko analisiaren emaitzak | 1- Inguru guztiz euskaldunean dago kokatuta gure ikastola.<br>2- Euskararekiko jarrera oso positiboa da gure inguruan. | 1- Euskararen erabilera normalizatua izateak arlo honekiko trataera oinarrizko dokumentuetan eskasa izatea eragin du. | 1- Ikastolako oinarrizko dokumentuetan hizkuntzen trataerari buruzko irizpideak azaldu behar dira. |
| Hizkuntzen trataera orokorra: erabili / lantzen den hizkuntza bakoitzaren lehentasunak eta funtzioak | 1-Ikastolak eleanitz proiektuan parte hartzen du. | 1- Ikastolan lantzen diren hizkuntza bakoitza duen eginkizunari buruzko hausnarketa formalik ez da egin. | 1- Ikastolan lantzen diren hizkuntza bakoitzaren lekuari eta eginkizunari buruzko hausnarketa egin behar da eta irizpideak idatzi. |

B. HIZKUNTZEKIKO ESKU HARTZE EREMU GARATUA

1. EREMU PEDAGOGIKOA
1.1. Eremu kurrikularra
1.1.1. Kudeaketa pedagogikoa
1.1.1.1. Curriculum proiektua
1.1.1.1.1. Hizkuntza-arloko curriculum integratua

| ESPARRUA | INDARGUNEAK | AHULEZIAK | BEHARRAK |
|---|---|---|---|
| **A. Ikastolaren hizkuntza-plangintza (Kud. Ped. Gald.: 1. erans.)** | | | |
| Hizkuntzen banaketa eta ordutegia | 1- Hizkuntzen banaketa gure izaerarekin bat dator. | 1- Hizkuntzen arloan errefortzuen eskaintza eskasa da. | 1- Hizkuntzen inguruko errefortzua planifikatu behar da. |
| Plangintza horretarako irizpideak | 1-Irizpideak badaude | 1-Irizpideak ez daude idatzita.<br>2- Ez dira emaitzak sistematikoki neurtzen. | 1-Irizpideak idatzi behar dira.<br>2-Emaitzen neurketa sistematizatu behar da. |
| Hizkuntza-jatorri desberdinen trataera | 1-Jatorri bereko ikasleak ditugu. | 1-Egoera aldatuz gero, aurre egiteko planifikaziorik ez dago eginda. | 1-Jatorri desberdineko ikasleen integrazioaren planifikazioa egin behar da. |

| ESPARRUA | INDARGUNEAK | AHULEZIAK | BEHARRAK |
|---|---|---|---|
| **B. Hizkuntza-arloaren kudeaketa** | | | |
| ***B.1.Hizkuntza-arloaren antolaketa (LH) (Kud. Pedag., gald.: 2. erans.)*** | | | |
| Koordinazio orokorra | 1-Etapetako koordinazioa planifikatuta eta sistematizatuta dago 2-Urtero neurtzen dira baldintzak eta emaitzak. | 1-Zenbait irakasle etapa desberdinetan aritzen dira eta ezin dute bilera guztietan parte hartu. 2-Etapen arteko eta ziklo eta maila barruko koordinazio bilerarik ez da planifikatzen. | 1-Etapen arteko eta ziklo eta maila barruko koordinazioa planifikatu eta sistematizatu behar da. |
| Hizkuntza-arloari dagokion koordinazioa | 1-Koordinazio lana planifikatuta eta sistematizatuta dago 2-Urtero neurtzen dira emaitzak.(mintegien balorazioa) | 1-Denbora gutxi eskaintzen zaio lan honi helburuak bete ahal izateko.<br>2-Ez dago ziklo eta maila barruko eta etapen arteko koordinazioa planifikatuta. 3- | 1-Etapen arteko eta ziklo eta maila barruko koordinazioa planifikatu eta sistematizatu behar da. 2-Denbora gehiago eskaini behar zaio lan honi helburuak bete ahal izateko<br>3- Hizkuntzen mintegi |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | Hizkuntzen mintegi integratua falta da. 4-Gaztelera eta frantseseko departamentuen koordinazioa ez dago planifikatuta. | integratua sortu behar da. 4-Hizkuntza guztiek behar dute departamendua osatuta edukitzea |
| ***B.2. Hizkuntza-departamenduen antolaketa (Bigarren Hezkuntza) (Kud. Pedag., gald.: 3. erans)*** | | | |
| Funtzioak | 1-Funtzioak zehaztuta daude. | 1-Funtzioen zehaztapena ez dago bateratuta departamentuen artean. | 1-Funtzioen zehaztapena bateratu behar da departamentuen artean. |
| Funtzionamendu-baldintzak | 1-Hizkuntz departamentuen koordinazioa planifikatuta eta sistematizatuta dago. 2-Mintegi buruak badaude. | 1-Departamentu buruak ez ditu bere lana betetzeko aitortutako ordurik. 2- Denbora gutxi eskaintzen da helburuak bete ahal izateko. | 1-Departamentu buruak bere lana betetzeko behar dituen orduak eduki behar ditu. 2-Helburuak bete ahal izateko denbora gehiago eskaini behar zaio lan honi. |
| Harremanak: bertikalak (ziklo-etapen artean) eta horizontalak (beste departamenduekin) | 1-Etapa barruko koordinazioa planifikatuta eta sistematizatuta dago bi departamentuetan. | 1-Etapen arteko koordinazioa ez dago planifikatuta. 2- Departamentuen arteko koordinazioa planifikatu behar da.(Hizkuntz mintegi integratua) | 1-Etapen arteko koordinazioa planifikatu eta sistematizatu behar da. 2-Hizkuntz departamentuen mintegi bateratua sortu behar da. |

| *ESPARRUA* | *INDARGUNEAK* | *AHULEZIAK* | BEHARRAK |
|---|---|---|---|
| ***C. Curriculum proiektuak*** | | | |
| Hizkuntza bakoitzeko curriculum proiektua (Kud. Pedag., gald.: 4. eranskina) | 1-Irakasle gehienek oso altu baloratzen dute curriculum proiektuaren baliagarritasuna. 2-Ingelesaren kasuan, balorazioa oso altua da curriculum proiektuaren arlo | 1-Etapa arteko curriculum proiektuen loturek oso balorazio eskasa dute. 2-Curriculum proiektuan, ebaluazio irizpideak balorazio baxuena lortu duen arloa da. | 1-Koordinazio bertikala hobetu behar da departamendu gehienetan. 2- Ebaluazio irizpideei buruzko koordinazio horizontala eta bertikala hobetu behar da departamendu |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | guztietan | | guztietan. |
| Aukeratutako testuliburuak (Kud. Pedag., gald.: 5. eranskina) | 1-Testu liburuak aukeratzeko irizpidea oso garbia da maila gehienetan. | 1- Irakasle gehienek ez dute testu liburuak aukeratzeko irizpidea baloratu. | 1- Testu liburuen aukeraketa egiteko irizpideari buruzko hausnarketa egin behar da(metodologiaren aukeraketa suposatzen duen neurrian) |
| Hizkuntzen arteko loturak (Kud. Pedag., gald.: 6. eranskina) | 1-Erabiltzen ditugun ikastolen elkarteko ikasmaterialek hizkuntzen arteko lotura bideratzeko aukera ematen dute. | 1-Ez dago hizkuntzen arteko loturarik. | 1-Hizkuntza arloen arteko lotura planifikatu eta sistematizatu behar da(hizkuntzen mintegi integratua). |

1.1.1.1.3. Beste arloetako curriculumak

1.1.1.1.3.1. Hizkuntzen trataera instrumentala (Kud. Pedag., gald.: 7. eranskina)

| ESPARRUA | INDARGUNEAK | AHULEZIAK | BEHARRAK |
|---|---|---|---|
| Arlo desberdinen hizkuntz beharrak | | 1-Ez da beste arloen hizkuntz beharren inguruko hausnarketarik egin. 2- Arlo desberdinetan ez da ebaluazio irizpideetan hizkuntzaren inguruko zehaztapenik egiten. | 1-Beste arloen hizkuntz beharren inguruko hausnarketa egin behar da. 2- Ebaluazio irizpideetan hizkuntzaren trataerari buruzko irizpideak zehaztu eta koordinatu behar dira. |
| Hizkuntza-irakasleen eta beste arloetako irakasleen arteko harremanak | 1-Erabiltzen ditugun metodo globalizatuek lotura hauek zehaztuta ekartzen dituzte. | 1-Hizkuntz arloko eta beste arloetako irakasleen arteko kolaborazioa eskasa da. | 1-Hizkuntza arloko eta beste arloetako irakasleen arteko kolaborazioa hobetu behar da. |
| Aukeratutako testuliburuak (Kud. Pedag., gald.: 8. er.) | 1-Testu liburuak aukeratzeko irizpidea oso garbia da maila gehienetan. | 1- Irakasle gehienek ez dute irizpidea baloratu. | 1- Testu liburuak aukeratzeko irizpideari buruzko hausnarketa egin behar da. |

1.1.1.2. Egitasmo osagarriak (Proiektu osagarriak, galdetegia)

| ESPARRUA | INDARGUNEAK | AHULEZIAK | BEHARRAK |
|---|---|---|---|
| Euskara eta euskal kultura | 1-Ikastola osorako plangintza egituratuta dugu. | 1-Gurasoen eta ikasleen partaidetza hobetu daiteke. | 1-Gurasoen eta ikasleen partaidetza hobetu behar da. 2-Euskararen |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | 2-Inguru guztiz euskalduna dugu eta euskararekiko jarrera oso positiboa da. | 2-Euskararen normalizazioa gainditutzat hartzeko arriskua dugu. | normalizazioari buruzko sentsibilitatea mantendu behar da. |
| Zehar lerroak | 1-Ikastola osorako plangintza egituratuta dugu. | 1- Plangintza honetan ez da hizkuntzen trataerari buruzko zehaztapenik egiten | 1- Zehar lerroen plangintzan hizkuntzen trataerari buruzko zehaztapenak egin behar dira. |

1.1.1.3. Irakasleen prestakuntza-planak

| ESPARRUA | INDARGUNEAK | AHULEZIAK | BEHARRAK |
|---|---|---|---|
| Ikastolaren prestakuntza plana (Irakasleen prestakuntza, galdetegia: 1. eranskina) | | | |
| Ikastolaren plangintza orokorra | 1-Irakasleen prestakuntzaren inguruko plangintza orokorra badugu.<br>2-Urtero neurtzen dira emaitzak. | 1-Behar guztiak asetzeko ez dago denbora nahikoa.<br>2- Prestakuntza planetan jasotakoaren erabilgarritasuna askotan neurtzeko zaila da.<br>3- Prestakuntza planetan jasotakoaren jarraipena ez da egiten. | 1- Denbora gehiago eskaini behar zaio arlo honi behar guztiak bete ahal izateko.<br>2- Prestakuntza planetan jasotakoaren jarraipena egin behar da.<br>3- Prestakuntza plangintzaren emaitzak neurtzeko bideak hobetu behar dira. |
| Azken urteetako prestakuntza-ikastaroak | 1-Langileon euskara gaurkotzeko jarduerak burutu dira.<br>2-Ikasmaterial globalizatuen inguruko mintegietan parte hartu du irakasleriaren zati batek. | 1-Ikastaroetan jasotakoa ez zaio talde osoari azaltzen(dagokion mailan)<br>2- Ikastaroetan jasotakoaren aplikazioa ez da neurtzen. | 1- Ikastaroetan jasotakoaren kontrasteak planifikatu behar dira.<br>2- Ikastaroetan jasotakoaren aplikazioa neurtzeko eta jarraitzeko bideak sortu behar dira. |
| Aurtengo prestakuntza-ikastaroak | Berdin | Berdin | Berdin |
| Irakasleen prestakuntza (Irakasleen prestakuntza, galdetegia: 2. eranskina) | | | |
| Irakasleek emandako datuen hustuketa orokorra ehunekotan | 1-Euskara gaurkotzeko ikastaroetan parte hartutakoen ehunekoa oso altua da. | 1-Metodologia ikastaroetan parte hartutakoen ehunekoa ez da %50era iristen.(%29-41-35) | 1-Metodologia ikastaroetan parte hartzea indartu behar da. |
| Irakasleek emandako datuen hustuketa | | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ehunekotan etapaka | | | |
| Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza | 1-Euskara gaurkotze ikastaroan LHn parte hartzea oso altua izan da (%100)<br>2- Metodologia ikastaroetan parte hartzea altua da HH eta LHn . | 1-Euskara gaurkotzen ikastaroetan parte hartzea 0-2 zikloan oso eskasa izan da (%38). | 1- 0-2 zikloan ikastaroetan parte hartzea indartu behar da. |
| DBH eta Batxilergoa | 1-Euskara gaurkotzen ikastaroetan parte hartzea oso altua izan da departamendu guztietan.<br>2-Metodologia ikastaroetan parte hartzea oso altua izan da ingeleseko departamenduan. | 1-Metodologia ikastaroetan parte hartzea eskasa izan da departamendu gehienetan | 1-Metodologia ikastaroetan parte hartzea indartu behar da departamendu gehienetan. |

1.1.2. Interakzio didaktikoa
1.1.2.1. Harremanak

| ESPARRUA | INDARGUNEAK | AHULEZIAK | BEHARRAK |
|---|---|---|---|
| Harreman hizkuntza, arloaren hizkuntza euskara denean (Int. Did., gald.) | 1-Euskararen erabilpena erabatekoa da. | 1-Erabili beharreko erregistroak ez daude zehaztuta. | 1-Erabili beharreko erregistroei buruzko hausnarketa egin behar da. |
| Harreman hizkuntza, arloaren hizkuntza euskara ez denean (Int. Did., gald.) | 1-Ingelesa arloan, dagokion hizkuntzaren erabilpen maila altua da ikasleen aldetik. | 1-Gazteleraren eta frantsesaren kasuetan zailtasunak daude harremanak dagokion hizkuntzan gauzatzeko. 2-Ingelesa arloan, dagokion hizkuntzaren erabilpena batxilergoan beste mailetan baino eskasagoa da | 1-Gazteleraz eta frantsesez hitz egiteko gaitasuna indartu behar da ikasleen artean. 2- Ingelesaren erabilpena indartu behar da batxilergoan. |
| Irakaslearen hizkuntza eredua eta hizkuntzekiko jarrera (Ulibarri) | | | |
| Irakasle / ikasle arteko hizkuntza erabilera eta kalitatea (Int. Didak. Gald / Ulibarri) | 1-Irakasleek gaiari dagokion hizkuntza erabiltzen dute gehienetan ikasleekin. | 1-Ez da irakasle/ikasle arteko hizkuntza(euskara denean) eredua zehazteko irizpiderik. 2- Ez da irakasleen hizkuntza maila neurtzen. | 1-Irakasle/ikasle arteko hizkuntza eredua zehazteko irizpideak sortu behar dira 2-Irakasleen hizkuntza maila neurtzeko bideak sortu behar dira. |
| Ikasleen arteko hizkuntza erabilera: saio-mota nagusiak (Int. Didak. Gald) | 1- Ingelesa arloan mintzamena nagusitzen da beste gaitasunen gainetik. 2- Erabiltzen ditugun ikasmaterialek hizkuntzen ikuspegi komunikatiboa lantzeko bidea jartzen dute. | 1-Hizkuntza arloetan ez dago koherentziarik maila desberdinen artean saio motei dagokionez. 2- Arlo gehienetan entzumena eta irakurmena nagusitzen dira mintzamenaren gainetik. | 1-Hizkuntza arloetan saio motak koordinatu behar dira. 2-Mintzamenaren papera indartu behar da saio ereduetan, arlo gehienetan.(Klase emateko modua aldatu behar da,ikuspegi komunikatiboa landuz). |
| Ikasleen hizkuntza-kalitatea | 1-Euskara da gure ikasleen lehenengo hizkuntza eta | 1-Ez da ikasleen hizkuntza kalitatea behar bezala neurtzen. | 1-Ikasleen hizkuntza maila neurtzeko eta hobetzeko bideak |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | erabateko erraztasunarekin mintzatzen dira euskaraz. | | hobetu behar dira. |

1.1.2.2. Baliabideak

| ESPARRUA | INDARGUNEAK | AHULEZIAK | BEHARRAK |
|---|---|---|---|
| Hizkuntza-gelak (Int. Didak. Gald) | 1-LH eta HHn ingeleseko gela dago. | 1-Hizkuntza gelak falta dira. | 1-Falta diren hizkuntza gelak sortu behar dira. |
| Gela barruko hizkuntza-paisaia: horma-irudiak, kartelak etab. (Int. Didak. Gald / Ulibarri) | | 1-Hizkuntza paisaia osatzeko ez dago zehaztutako irizpiderik . | 1-Hizkuntza-paisaia osatzeko irizpideak zehaztu behar dira. |
| Informazio-iturrien eta bestelako baliabideen hizkuntza (Int. Didak. Gald) | 1-LH eta HHn, gela guztietan dago baliabide desberdinen hornidura. | 1-Baliabideen hizkuntza zehazteko irizpiderik ez dago.<br>2-DBH eta DBHOn ez dago geletan inongo baliabiderik. | 1-Geletan dauden baliabideen hizkuntza zehazteko irizpideak sortu behar dira.<br>2-DBH eta Batxilergoan baliabideak jarri behar dira |

**1.2. Eremu ez kurrikularra**

1.2.1. Guneak eta zerbitzuak (Ulibarri / garbantzuak)

| ESPARRUA | INDARGUNEAK | AHULEZIAK | BEHARRAK |
|---|---|---|---|
| Jolasaldiak | 1-Euskara da ikasleek komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza | 1-Zenbait jolas gaztelaniaz egiten dituzte ikasleek | 1-Jolasak euskaraz egiteko aukera eman behar zaie ikasleei. |
| Jantokia, garraioa, zerbitzuak | 1-Hauetan guztietan euskara da komunikatzeko hizkuntza. | 1-Arduradunen hizkuntza maila ez dago neurtuta.<br>2-Erabili beharreko erregistroen inguruko hausnarketarik ez da egin. | 1-Arduradunen hizkuntza maila neurtzeko eta hobetzeko bideak jarri behar dira.<br>2-Erabili beharreko erregistroen inguruko hausnarketa egin behar da. |
| Eskolaz kanpoko ekintzak | 1-Ekintza guztiak euskaraz burutzen dira | 1-Arduradunen hizkuntza kalitatea ez da neurtzen.<br>2-Erabili beharreko | 1-Arduradunen hizkuntza maila neurtzeko eta hobetzeko bideak |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | erregistroen inguruko hausnarketarik ez da egin. | jarri behar dira.<br>2-Erabili beharreko erregistroen inguruko hausnarketa egin behar da. |

1.2.2. Partaideak (Ulibarri)

| ESPARRUA | INDARGUNEAK | AHULEZIAK | BEHARRAK |
|---|---|---|---|
| Irakasleen arteko hizkuntza-erabilera eta kalitatea | 1-Irakasleen arteko komunikazioa euskaraz egiten da. | 1-Ez da erabili beharreko erregistroen inguruan hausnarketarik egin.<br>2-Ez da irakasleen hizkuntza kalitatea neurtzen. | 1-Irakasleen arteko komunikazioan erabili beharreko erregistroen inguruko hausnarketa egin behar da.<br>2-Hizkuntza kalitatea neurtzeko eta hobetzeko bideak jarri behar dira. |
| Gainerako giza baliabideen hizkuntza | Berdin | Berdin | Berdin |
| Ikasleen arteko hizkuntza-erabilera (Ulibarri) eta kalitatea | 1-Euskara da komunikatzeko hizkuntza. | 1-Aho hizkuntzaren kalitatearen neurketarik ez da egiten. | 1-Aho hizkuntzaren kalitatea neurtzeko eta hobetzeko bideak jarri behar dira. |

2. EREMU INSTITUZIONALA

2.3. Ikastolako antolaketa (Ulibarri)

| ESPARRUA | INDARGUNEAK | AHULEZIAK | BEHARRAK |
|---|---|---|---|
| Gobernu eta funtzionamendu-organoak | 1-Euskaraz gauzatzen dira komunikazio guztia. | 1-Hizkuntza kalitatea ez da neurtzen.<br>2- Erabili beharreko erregistroen inguruko hausnarketarik ez da egin. | 1-Hizkuntza kalitatea neurtzeko eta hobetzeko bideak jarri behar dira.<br>2-Erabili beharreko erregistroen inguruko hausnarketa egin behar da. |
| Ekonomia, administrazioa eta dokumentazioa | 1-Euskara komunikatzeko ohiko hizkuntza. | 1-Kanpo harremanetan ezinezkoa da beti euskara erabiltzea.<br>2- Ez da hizkuntza kalitatea neurtzen.<br>3-Erabili beharreko erregistroen inguruko hausnarketarik ez da egin. | 1-Kanpo harremanetan euskararen erabilpena indartu behar da<br>2- Hizkuntza kalitatea neurtzeko eta hobetzeko bideak jarri behar dira<br>3- Erabili beharreko erregistroen inguruko hausnarketa egin behar da. |
| Pertsonalaren hizkuntza profilak | 1- Langileriaren titulazioa berdina da kasu gehienetan | 1- Jatorri desberdineko langileak daude.<br>2-Desberdintasunak badaude hizkuntza gaitasun aldetik langileen artean. | 1- Lanpostu guztien hizkuntza gaitasuna zehaztu behar da eta lortzeko bideak jarri. |
| Espazioen banaketa eta trataera | | | |
| Ikastetxeko errotulazio eta informazio guneak (errotulazioa, kartelak, iragarpen-taulak etab.) | 1-Ikastolako paisaia osoa euskaraz dago osatuta. | 1-Ez da ikastolako errotulazio eta informazio guneetan erabili beharreko hizkuntzen inguruko irizpiderik idatzi. | 1-Ikastolako errotulazio eta informazio guneetan erabili beharreko hizkuntzari buruzko irizpideak idatzi behar dira. |

2.4. Harremanak

| ESPARRUA | INDARGUNEAK | AHULEZIAK | BEHARRAK |
|---|---|---|---|
| Familia (Ulibarri) | | | |
| Ikastola eta gurasoen | 1- Harreman ia guztiak | 1-Gurasoekin | 2- Gurasoekin |

| | | | |
|---|---|---|---|
| arteko harremanak | euskaraz egiten dira. | harremanak bideratzeko ez dago irizpide idatzirik.(bilerak) | harremanak bideratzeko irizpideak zehaztu behar dira |
| Familia barruko hizkuntza-erabilera eta kalitatea<br>(Ikaswin) | 1- Familia gehienetan euskara erabiltzen da | 1-Familiatan erabiltzen den hizkuntza kalitatea ez da neurtzen. | 1-Familiatan erabiltzen den hizkuntza kalitatea neurtzeko eta hobetzeko bideak jarri behar dira. |
| Gizartea orokorrean (Ulibarri) | | | |
| Beste ikastetxeekiko harremanak | 1-Harremanak beti euskaraz egiten dira | 1- Beste ikastetxeekiko harremanetan erabili beharreko hizkuntzaren inguruko irizpide idatzirik ez dago | 1- Beste ikastetxeekiko harremanetan erabili beharreko hizkuntzaren inguruko irizpideak idatzi behar dira. |
| Herriko beste talde eta erakundeekiko harremanak | 1-Harremanak beti euskaraz egiten dira | 1- Berdin | 1-Berdin |
| Administrazioarekiko harremanak | 1- Harremanak euskaraz egiten dira ahal den guztietan. | 1-Berdin | 1-Berdin |
| | | | |

# 10.2-AZPEITIKO IKASTOLA IKASBERRI

# HIZKUNTZA ERREGISTROAK

# 1.-HIZKUNTZA ERREGISTROAK; JUSTIFIKAZIOA

Urola erdian kokaturik dagoen ikastola da. Ikasleriaren portzentaje nagusiena Azpeitikoa da. Baina baita ere biltzen ditu Azkoitiko, Zestoako, Aizarnazabalgo, Errezilgo eta hainbat auzoko (Landeta, Urrestilla, Nuarbe...)ikasleak.

Familia-tipologiaz esan, elebiduna dela ia ehuneko osoan, fenomeno bakarrenetakoa Euskal Herriko geografian. Ondorioz ikasleak ere elebidunak dira (HH eta LHn gehiengoa euskal elebakarra). Azpimarratzekoa etorkinen kopurua handitzen ari dela eta hauen egokitzapena euskararekiko, azkarra eta egokia dela, salbuespenak salbuespen. Bistan dago, hau dena gauden eskualde euskaldun peto-petoa delako da.

Gure ikastolan, bere hasieratik, euskararen erabilpena oso altua izan da (%97,91). Hala ere, hizkuntza desberdinen erabilpena eremu guztietan finkatzeko ahalegina egin da aurreko urteetan hizkuntza proiektua sortuz eta, horri esker, euskararen presentzia eta erabilpena bermatzeko estrategiak dokumentatuta daude.

Hasiera-hasieratik, abian zegoen Euskaraz bizi proiektuan murgildu zen. Euskaraz aritzeko motibazio-kanpainarik beharrik ez da izan ikastolan, baina Euskaraz Biziren baitan gauza asko eta asko egin dira. Euskal tradizioko eta kulturako ondarea suspertu, sustatu eta errekuperatu da. Aipatzekoa da adibidez, ikastolak eskaintzen dion Azpeitiko herriari, kalean burutzen baita, Euskal Inauteriaren anima eta ikuskizuna,euskal geografian oinarritutako dantzak irudikatuz. Euskaraz aritzeko motibazioa bakarrik ez da izan, bai ordea euskararen maila hobetzeko eta gurasoentzat zein irakasleentzat ikastaro trinkoak antolatzen dira.

Era berean, Hizkuntza Proiektua martxan dugu. Ikas/irakaskuntzan bi helburu nagusi ditugu. Bata, nola sustatu eta hobetu gaztelaniaren erabilera, nahiz eta paradoxa bat dela iruditu, eta bestea erregistroen eta inguruko euskalkien aplikapena nola gauzatu hizkuntza sisteman.

Euskararen kalitatearen inguruko kezka nabaria da, batik bat erregistro formalak erabiltzeko garaian ahozkotasunari dagokionez. Izan ere, erregistro ez-formala erabiltzeko joera eremu guztietan zabaldu da, desegokia izan arren.

Beste aldetik hitanoaren erabilpenaren inguruko hainbat kezka ere nabarmendu dira. Oso zabalduta egon arren, ez da zuzen erabiltzen hainbat kasutan.

Gabezi hau zuzentzeko 2010-11 ikasturtean abian jarri genuen prestakuntza plan bat, klaustro osoari zuzenduta. Ikasturte horretan hizkuntza erregistroen inguruko azterketa teoriko praktikoa burutu genuen, Ikastolen Elkartearen eskutik, gai honen inguruan marko teoriko garbi bat eskaintzeko hezitzaile guztiei.

Ondoren, 2011-12 ikasturtean gure ikastolan hizkuntza erregistroen presentzia komunikazio egoera desberdinetan nolakoa izan behar duen definitzeari ekin genion, gure marko orokorra izango dena finkatzeko asmoz. Lan hau Ikastolen Elkartearen gidaritzapean burutu ondoren, 2012-13 ikasturterako ekintza plana ondorioztatu genuen.

## 2.-EKINTZA PLANAREN DEFINIZIOA

Hizkuntza erregistroen inguruko lana gauzatu ahal izateko hainbat elementu hartu beharko dira kontuan:

**Hizkuntza-erregistroa.**

Ekintza komunikatibo bakoitzeko solaskideen arteko harreman-motaren, komunikazio-asmoaren, egoerak dakarren formaltasun-mailaren eta egoera definitzen duten beste hainbat faktoreren eraginez (testu-generoa, erabilera esparrua) erabiltzen den hizkera.

**Komunikazio-ekintza.**

Testuinguru jakin batean bi pertsona edota gehiagoren artean gertatzen den hitzezko egintza da. Hortaz, ekintza komunikatiboa gauzatzeak hitzez zerbait egitea eskatzen du. Kontzeptu hori ulertzeko, ezinbestean, ekintza oro gauzatzen den testuinguruak zein osagai dituen zehaztu behar dugu:

· enuntziatzailea (mezua nork eta zein roletatik bidaltzen duen)

· enuntziatarioa (mezua nori eta zein roletan bidali zaion)

· Xedea: enuntziatzaileak zer lortu nahi duen: eragitea, iritziz aldaraztea, zirikatzea, saltzea, informatzea, irakastea…

· Erabilera-esparrua: Administrazioa, komunikabideak, pertsonala, hezkuntza…

· Testu-generoa: iragarkia, gutuna, iritzi-artikulua, bertsoa, kantak, erreportajea, azalpen didaktikoa, hitzaldia…

**Hiztun osoa.**

Dena delako ekintza komunikatibotan egokitasunez, zuzentasunez eta eraginkortasunez komunikatzeko gai izatea.

Aurreko kontzeptu horiek argi izanik, gure plangintza honen helburua gure Ikastolako ikasleak hiztun osoak izatera iritsi behar dute; hots, edozein egoera komunikatiboa dela eta, gure ikasleak egokitasunez, zuzentasunez eta eraginkortasunez komunikatzeko gai izatera iritsi behar dute.

**Baldintzak.**

Helburua lortu ahal izateko hainbat baldintza hartu beharko dira kontuan:

- Proiektuaren arduraduna Hizkuntza Proiektuaren dinamizatzaile orokorra izango da
- Etapaka gauzatuko dira lan ildo nagusiak eta horretarako koordinatzaile pedagogikoa izango dugu laguntzaile.
- Lanaren jarraipena egiteko astero etapaka egiten diren bilerak izango dira gune nagusia.
- Lanaren jarraipena eta emaitzak baloratzeko hiru saio burutuko dira ikasturtean zehar (ebaluazio bakoitzean bat).

**Marko orokorra**

**HH-**

Irakasleen eta ikasleen arteko egoera komunikatibo gehienak hizkera familiarraren ereduaren araberakoak izanik, umeek etxetik dakarten hizkeratik gertuko ereduan gauzatuko dira. Beraz, ikastolaren testuinguru soziolinguistikoa aintzat hartuta, egoera komunikatibo gehienak euskalkian gauzatuko dira, etxeko giroan hitz egiten den moduan. Ikastolaren kokagunekoak ez diren irakasleek beraien jatorriko hizkeraren eredu familiarrena erabiliko dute

Egoera komunikatiboen markoa lanketa didaktikoa denean hizkera familiar hori, ikastolaren kokaguneko zein hiztunaren jatorrizko eredua, egokituko da, eta beharrezko denean hizkera zainduaren ezaugarriak hartuko ditu.

**LH-**

**1.zikloa**

Irakasleen eta ikasleen arteko egoera komunikatiboetan, irakasleak ondo bereiziko du formaltasun mailaren arabera zein erregistro erabili behar duen. Oso garrantzitsua da erregistroen arteko aldea nabarmentzea, ikaslea erregistro bereizketaz jabetu dadin.

Egoera komunikatibo ez-formalak etxeko hizkeraren ereduan gauzatuko dira.

Egoera komunikatibo formaletan, berriz, eredu zainduan ariko da irakaslea ikasleari. Ikasleari ez zaio eskatuko eredu formalean jardutea, eredua emango zaion arren.

Komunikazio egoerak eredu zainduan: azalpenak eta aurkezpenak, galdera eta erantzunak talde osoari.

**2.zikloa**

Irakasleen eta ikasleen arteko egoera komunikatiboetan, irakasleak ondo bereiziko du formaltasun mailaren arabera zein erregistro erabili behar duen.

Oso garrantzitsua da erregistroen arteko aldea nabarmentzea, ikaslea erregistro bereizketaz jabetu dadin.

Egoera komunikatibo ez-formalak etxeko hizkeraren ereduan gauzatuko dira.

Egoera komunikatibo formaletan, berriz, eredu zainduan ariko da irakaslea ikasleari. Ikasleari azalduko zaio horrelakoetan eredu formalean aritzea dela egokiena, ebaluatuko ez zaion arren.

Komunikazio egoerak eredu zainduan: azalpenak eta aurkezpenak, galdera eta erantzunak talde osoari

**3.zikloa**

Irakasleen eta ikasleen arteko egoera komunikatiboetan, irakasleak ondo bereiziko du formaltasun mailaren arabera zein erregistro erabili behar duen. Oso garrantzitsua da erregistroen arteko aldea nabarmentzea, ikaslea erregistro bereizketaz jabetu dadin.

Egoera komunikatibo ez-formalak etxeko hizkeraren ereduan gauzatuko dira.

Egoera komunikatibo formaletan, berriz, eredu zainduan ariko da irakaslea ikasleari. Ikasleari eskatuko zaio horrelakoetan eredu formalean aritzea, baita ebaluatu ere ziklo amaierako irizpideen arabera.

Komunikazio egoerak eredu zainduan: azalpenak eta aurkezpenak, galdera eta erantzunak talde osoari

**DBH**

**1.zikloa**

Irakasleen eta ikasleen arteko egoera komunikatiboetan, irakasleak ondo bereiziko du formaltasun mailaren arabera zein erregistro erabili behar duen. Oso garrantzitsua da erregistroen arteko aldea nabarmentzea, ikaslea erregistro bereizketaz jabetu dadin eta dagokion erregistroan egoki moldatu dadin.

Egoera komunikatibo ez-formalak etxeko hizkeraren ereduan gauzatuko dira.

Egoera komunikatibo formaletan, eredu zainduan ariko da irakaslea ikasleari. Ikasleari eskatuko zaio horrelakoetan eredu formalean aritzea, baita ebaluatu ere ziklo amaierako irizpideen arabera.

Komunikazio egoerak eredu zainduan: azalpenak eta aurkezpenak, galdera eta erantzunak talde osoari

DBH etapa amaierako euskararen gaitasun maila B2ren parekoa da, jakintza-arlo guztietan. Beraz, hizkuntzaren lanketa arlo guztietako irakasle guztien egitekoa dela garbi izanik, ondorengo hizkuntza helburuak ezarriko zaizkie ikasgaiei:

3. Euskara arloan, erregistro zaindua (bai batuan, bai euskalkian) lantzen jarraitu behar dute. Zentzu horretan, ikasleek ahozko aurkezpenak bi hizketa motetan egin beharko dituzte eta bien erabilera maila berean bermatu beharko da.
4. Gainerako arloetan, ikasleen azalpenak eta aurkezpenak euskara jasoan egingo dira. Irakaslearen jarduna euskara jasoari dagokiona izango da.

**2. zikloa**

Irakasleen eta ikasleen arteko egoera komunikatiboetan, irakasleak ondo bereiziko du formaltasun mailaren arabera zein erregistro erabili behar duen. Oso garrantzitsua da erregistroen arteko aldea nabarmentzea, ikaslea erregistro bereizketaz jabetu dadin eta dagokion erregistroan egoki moldatu dadin.

Hartara, egoera komunikatibo ez-formaletan etxeko hizkeraren ereduan gauzatuko dira.

Egoera komunikatibo formaletan, eredu zainduan ariko da irakaslea ikasleari. Ikasleari eskatuko zaio horrelakoetan eredu formalean aritzea, baita ebaluatu ere ziklo amaierako irizpideen arabera.

Komunikazio egoerak eredu zainduan: azalpenak eta aurkezpenak, galdera eta erantzunak talde osoari

DBH etapa amaierako euskararen gaitasun maila B2ren parekoa da, jakintza-arlo guztietan. Beraz, hizkuntzaren lanketa arlo guztietako irakasle guztien egitekoa dela garbi izanik, ondorengo hizkuntza-helburuak ezarriko zaizkie ikasgaiei:

3. Euskara arloan, ahozko aurkezpen guztiak batuan egin behar dituzte. Gainontzeko ekintza komunikatibo formalak (gaiari egindako ekarpenak, zehaztapenak, argudioak…) erregistro zainduan egingo dira, izan euskalkia izan euskara batua
4. Gainerako arloetan, ikasleen eta irakasleen azalpenak eta aurkezpenak euskara jasoan egingo dira.

**DBHO**

Irakasleen eta ikasleen arteko egoera komunikatiboetan, irakasleak ondo bereiziko du formaltasun mailaren arabera zein erregistro erabili behar duen. Oso garrantzitsua da erregistroen arteko aldea nabarmentzea, ikaslea erregistro bereizketaz jabetu dadin eta dagokion erregistroan egoki moldatu dadin.

Hartara, egoera komunikatibo ez-formaletan etxeko hizkeraren ereduan gauzatuko dira.

Egoera komunikatibo formaletan, eredu zainduan ariko da irakaslea ikasleari . Ikasleari beren beregi eskatuko zaio horrelakoetan eredu formalean aritzea, baita ebaluatu ere ziklo amaierako irizpideen arabera.

Komunikazio egoerak eredu zainduan: azalpenak eta aurkezpenak, galdera eta erantzunak talde osoari

DBHO etapa amaierako euskararen gaitasun maila C1en parekoa da, jakintza-arlo guztietan. Beraz, hizkuntzaren lanketa arlo guztietako irakasle guztien egitekoa dela garbi izanik, ondorengo hizkuntza helburuak ezarriko zaizkie ikasgaiei:

3. Euskara arloan, euskara batua izango da komunikazio tresna egoera komunikatibo guztietan. Irakaslearen jarduna euskara batuan gauzatuko da.
4. Gainerako arloetan ere, ikasleen eta irakasleen azalpenak eta aurkezpenak euskara batuan egingo dira.